

# B

BARREN

TOKIKOM

Elgoibarko Izarraren aldeko

# TONBOLA

Abenduaren 24an, Kalegoen plazan



Elgoibar

Urte berri on!



myl precision spindles  
& spindle repair services

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO

Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130

E-posta: myl@myl.es · <http://www.myl.es>



mataza handitzen ari da...

# **bultza dezagun aldaketa**



**eh  
bildu**



<http://elgoibar.ehbildu.net/>  
[elgoibar@ehbildu.net](mailto:elgoibar@ehbildu.net)

ZORIONAK  
URTE BERRI  
ON

FELIZ  
ANO  
NUEVO  
HAPPY  
NEW  
YEAR

圣诞快乐

BONNE  
ANNÉE

GUTES  
NEUES  
JAHR

FELICE  
ANNO  
NUOVO



Azkue Aztoa 1 / Upalz-Zaharra 22 Elgoibar Tfnoa 943 74 40 40 Eposta: lls@lls.es www.lls.es



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES

# GOKIERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
goki@gokierreformak.com



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216  
bergara@gokierreformak.es

Fatxadak - Teilatuak - Bainugelak - Sukaldeak  
Igogailuak - Gremioen koordinakuntza

[www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)

**Gabon  
Zoriontsuak!**

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

**Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!**



Kalebarren plaza, 2 – 943 742 731  
20870 ELGOIBAR • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)



LEHENENGO BISITA + AZTERKETA + AURREKONTUA DEBALDE

HAU DA ZALAPARTA DAGOENA  
ALDAZ HORTZ KLINIKAN! HORTZETAKO  
INPLANTEAK, 295 EUROTİK HASITA.  
KONTSULTA EZAZU ZURE KASUA!

**Iraultza dator  
Aldaz Hartz  
Klinikara**

HORTZETAKO  
INPLANTEA  
295 EURO

RPS 124/10

LEHENENGO 36 HILABETETEETAN EZ DUZU INTERESIK ORDAINDU BEHARKO  
(AURREKONTUAREN ARABERA)






Angel Ugarteburu

*“Oi, zein dan ituna behera-behar hau! Nik ez nahi eguna bihurtzerik gau!”*

Bai egokia Lizardi gure olerkari handiaren aipamena egunak hain labur eta gauak hain luze diren egunotan.



Andres Alberdi

Ondo ataka estura -eta sakonera- eraman nauk, Angel. Ez nian halako kontu serioirik espero inondik ere. Zer-eta bizitzaren zikloak hizpide, alajaina!

Beste nonbaitetik erasoko ninduala espero nian, joandako egunek eta azken aste-buruak berak ere horretarako asko ematen baitzuten: Euskaltzaindiko kontu desatseginak, industria-enpresa entzutetsu batzuen gainbehera,

Kataluniaren herri-aldarria, Olaizola II.aren edota Amets Arzallusen garaipenak, Mandelaren edota Ramon Labaienen heriotzak...

Ziklo bat besteari lotzen jakok, katebegi bat besteari legez: gaua eta eguna, argia eta iluna, poza eta tristura, bizitza eta heriotza. Eta geu ere hortxe gagozak bakoitza bere argi eta ilun, poz eta tristura, garai-pen eta porrotekin, ezinbestean. Bizitzaren legea baino ez dok. Gure arbaso eta gurasoen bide beretik goiazak; azaleko kontuak dituk aldatzen direnak. Etengabe errepikatzen den ziklo horretako katebegi baino ez gaituk.

Badatoz, baina, Eguberriak. Egun berriak, familian seme-alaba berriak eta zelaietan kimu berriak sortzen diren antzera. Eguzkiak gero eta bide luzeagoa egingo jok, berriz ere, beste katebegi bat osatu arte.

Lizardi bera dok erreferentzia zuzenena, ilunaren eta hotzaren ondoren argia datorrela konturatzeko. Hara zer idatzi zuen hurrengo honetan:

### “Urtero errepikatzen dituk baikor izateko motiboak; ikusten jakin behar”

*“Izotz- ondoko iguzki / neguaren parre: / olerkariak noizbait / hiri gorazarre - Behetik nator ibarrak / izotzuta utziak / mendia jaiez dago / urrezko jantziak”*

Urtero errepikatzen dituk baikor izateko motiboak; ikusten jakin behar.

Zer desbide jarri jostak zozo honek?- esango dok, erdi haserre. Baina hik jakingo dok, Andres, katebegi batetik bestera, azken 40 urteotan gurean izan ditugun aurrerapenen berri ematen, egunoton elkarri zorionak opatzeko moduan izan gaitezten.

### “Nahi nitek gauzak gaizki datozenean, burua jasotzeko adina indar izatea hari eusteko”

Kasualitatea ote? Zikloak hartu dituk hik mintzagai, eta horra gertaera horietan ere non ageri diren zikloak. Izan ere, bakoitza bere zikloak bizi dik. Ziklo batzuk itxi egiten dituk, eta, politikari ohi horien kasuan bezala, jendearen esker ona irabazita itxi ere; porrotaren zama pisutsua nozituz itxi dituk, ordea, beste batzuen kasuan. Badituk, igandeko garaipenak tarteko, arrakastaren olatuaren gain-gaineko zikloan aise, airoso eta airean kulunka gozoan doazen kasuak ere; galdetu, bestela, Aimarri edo Ametsi. Katalanen zikloaren aurrean dudan mira ere ezin diat ezkutatu. Hor zegok, zoritxarrez, gure Akademiaren zikloa ere, etxe-barneko minsorrek jota nora ezean oraingoz.

Urtaroen errepika aipatzen duk hik, eta baikor izaten ikasi behar dugula, eta gauzak ikusten jakin behar dugula. Iritzi berekoa nauk.

Zikloak, normalean, espiralean eraten dituk. Bueltan-bueltan doazak kiribilean, gora eta behera, atzera eta aurrera, baina ibilieren urratsak betiere pittin bat aurrera eginez. Halako moldea eta modua nahi nitek denontzat: bakoitzaren zikloa norberak berez eta beretik eginiko proiektua izatea, eta, batez ere gauzak gaizki datozenean, burua jasotzeko adina indar izatea hari eusteko eta berriz ere aurrera egiteko. Gabon zorionsuak denoi!

**Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset  
Digitalen

Estampatu gonbidatzen  
Hala ingurria  
Bata txartelak  
Kartelak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Koloretan  
Txarribehar

Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagask@euskalnet.net

**BMI**  
bronymec

Metal Ez-Ferrikoak  
Plastiko Teknikoak  
Konpositeak  
Mekanizazio Lanak

ISO 9001  
ISO 14001

BUREAU VERITAS  
Certification

www.bronymec.com

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibar  
biZi biZiketa



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Mikeli erantzuna

Ez naukan asmorik Mikeli erantzuteko, baina azkenean hitz batzuk idaztea erabaki dut. Bakarrik esango dizut errespetatzen dudala mendiarekin daukazu "harreman" hori eta zuk nirea errespetatzeko eskatuko nizuke. Batzuetan mendira lasai joatea atsegin dut, eta beste batzuetan, korrika, eta bai, egia da nire buruaren kontra lehiatzea atsegin dudala eta ahal badut joan den urteko denbora jais-tea, nahiz eta urteak aurrera joan... Ez dudana ulertzen da horrek zer min ematen dizun. Mesedez, zuk jarraitu mendira lasai joaten eta utzi besteei nahi duten bezala igotzen gure Karakate maitera.

Iñigo Ortuoste Arana ☺

### Flower power Karakaten

Badirudi Karakatera norgehiagoka korrika igotzea ez dela bidezkoa.

"Zergatik eraman lehia mendira? Nik bestelako harremana nahiko nuke Karakaterekin", dio gure lagunak.

Ez dakigu perretxikoak batzen utziko liguken edo eta marrazki lehiaketa bat antolatzerik posible izango litzatekeen; norgehiagoka noski.

Talibanismoaren metastasi motela da.

J. Etxeberria ☺

### Eskerrik asko

Idatzi honen bitartez, Arnaldo askatu, politika askatu plataformatik Ramon Labaien zendu berriaren familiari gure doluminak bidali nahi dizkiogu eta baita gure aldarrikapengatik eginiko lana eskertu ere.

Bide batez, Amets Arzallus txapeldun handia ere nahiko genuke zoriendu.

Biak ala biak izan baitira plataforma honen laguntzaile eta Arnaldoren askatasunaren aldeko adierazle.

Arnaldo askatu, politika askatu ☺

### Udalaren zorion agurrak

Orain dela sei hilabete inguru Elgoibarko udaletxeko harrera zerbitzuan eskakizun bat bete nuen: "Nire etxean erroldatutako inori zorion eskutitzik ez bidaltzeko". Arrazoiak honakoak: ez digu ilusiorik egiten, dirua alferrik gastatzea dela iruditzen zaigu, eta gainera,

berrerabilpena eta birziklatzea aipatzen dituelako, ahazten duelarik garrantzitsuena kontsumo arduratsua dela (papera, sobrea, frankoia, tinta). Baina badirudi hori lortzea telefonian enpresa bateko zerbitzu batetik baja ematea baino gehiago kostatzen dela.

Ordutik bi eskutitz iritsi zaizkigu. Aurreko aldian, gogorarazi egin nien eta despiste bat izan zela argudiatuta justifikatu zuten. Bigarren aldi honetako autua eskutitz horien kontrako kanpaina hastea izango da. Horregatik, nik bezala pentsatzen baduzu, zoaz udaletxeko harrera zerbitzura eta eskatu zorion eskutitzik bidali ez diezazuten. Ia denon artean eskakizunak modu eraginkorrean bideratuak izatea lortzen dugun.

Nagore Sanz ☺

## OHARRA

Iritsi dira Eguberrietako oporrak **BARRE**nera. Urtarrilaren 2an itzuliko gara lanera, eta hurrengo alea urtarrilaren 10ean jasoko duzue.



**King-Kongeko aparkalekutik Maalara doan bidea putzuz beteta egoten da:** “Euria egiten duenean ur putzu handiak sortzen dira King-Kongetik Maalara bitartean. Asfalto apur bat botata bide hori erraz egokitu daitekeela iruditzen zaigu. Eskertuko genuke ingurune hori txukuntzea. Mila esker”.



**Maalan estolda bat hondatuta dago:** “Orain dela bost edo sei hilabetetik hondatuta dago estolda bat Maalan. Autoak handik pasatzen direnean estolda hori zapaldu egiten dute, eta sekulako zarata ateratzen du estoldak. Neguan leihoak itxita izaten ditugu, baina uda partean zarata hori etengabe an entzuten dugu. Kexa sartu dugu udaletxean eta baita Gipuzkoako Urak enpresan ere, baina oraindik inor ez da etorri estolda konpontzera. Badirudi lehen eta bigarren mailako bizilagunak bereizten direla herri honetan! Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea”.

**Maalako tabernariak espaloi gainean jartzen dute terraza:** “Maala inguruko hainbat tabernariak espaloi gainean jartzen dute terraza, eta oinezkoak errepidera irten behar izaten dugu, espaloia beteta egoten delako. Udalak baimenak ematen dituzenean terrazen neurriak zaindu egin beharko lituzke, oinezkoentzako lekua gera dadin”.

**Sarrerak erosteagatik 0,90 euroko komisioa kobratzen dute:** “Ez dugu ulertzen! Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrera bakoitzagatik 0,90 euroko komisioa kobratu digu Kutxak, zerbitzu gastuengatik. Baina, zer zerbitzu eskaintzen dute ba? Norberak erosi behar ditu Internetez eta norberak jaso behar ditu makinan. Adineko jende askok ez daki Internetez erosten, eta ez Kutxako bulegoan dago inor laguntzeko. Lehen pertsona bat zegoen zerbitzu horietan laguntzeko, baina orain ez dago inor. Gehiegizkoa iruditzen zaigu”.



**Txalo bat Udaltzaingoari Euskararen Nazioarteko Egunean Herri Eskolako egin genuen kalejiran segurtasuna zaintzen egin zuten lanagatik:** “Abenduaren 3an kalejiran irten ginen Herri Eskolakoak, eta udaltzainek segurtasuna zaindu zuten ibilbide osoan zehar. Seguru sentitu ginen. Mila esker!”.

**Eskerrik asko elikagaien bankuarekin kolaboratu duten gazteei:** “Elikagaien Bankuak, Eroski supermerkatuaren bitartez, gazte lokaletan egin zuen elikagaiak biltzeko deia eta oso ondo erantzun dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

I. URTEURRENA

## SALBADOR IZAGIRRE BERNEDO



*Abenduan sortua  
abendua eramana  
hutsunea utzi zendun  
gure bizitzetan barna  
gurekin gelditzen da  
zurekin bizitako dana  
orain gurekin daramagu  
zure zati txiki/handi bana*



2012ko abenduaren 31n hil zen, 61 urte zituela. I. urteurrenako meza martitzenean, abenduak 31, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



# Olentzeroren zakua

10 arrazoi Eguberrietarako opariak  
Elgoibarko dendetan erosteko

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoeekin deskontuak eskuratuko dituzu, **abenduaren 20tik urtarrilaren 5a arte**. Erosketa bakoitzeko boleto bakarria erabili daiteke, eta ezin dira bestelako beharapenei gehitu.

1. Gure bizilagunak direlako
2. Zutaz arduratu eta tratu pertsonala eskaintzen dutelako
3. Herriko ekimenetan parte hartzen dutelako (festetan, aldizkarietan, kirol elkarteetan...)
4. Egiten duzun gastu hori, azken batean, inbertsio bat delako, eta lehenago edo beranduago, etekinen bat aterako diozuelako.
5. Gero ordaintzeko aukera ematen dutelako.
6. Erosketak egitean zure auzoan gertatzen denaren berri ematen dizutelako.
7. Erosketak egitera joateko ez daukazulako kutsatu beharrik.
8. Herriko kaleei bizitza eta segurtasuna ematen dietelako.
9. Lana ematen dutelako.
10. Aberastasuna bertan geratzen delako.

**GARATE**  
JANTZI-DENDA

kupoi honekin  
**%10eko**  
beherapena

39,95 euro

79,95 euro

**Gobike**

Bizikleten samentak eta konponketa  
Arropa eta osagarriak

Jamaitu gaitzazu Facebook-en  
<http://www.facebook.com/GOBIKE.ELGOIBAR>

**%10eko** beharapena

**BERRIA**  
High Performance Bicycle  
BERRIA ebosarekin zure bizikleta  
pertsonalizatzeko sakera izango duzu.

**MAVIC** **POLAR**  
LISTEN TO YOUR BODY

**SCOTT** **ROTOR**  
RINE-COMPONENTS

**sportful**

Santa Ana, 12- beheka ezkerrean  
20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
Tel.: 943 74 00 25 - 617 627 152

San Bartolome, 28 943 74 43 45

**BRAKO** etxeko botinetan  
**%50eko** beharapena

**%20eko** beharapena arropetan  
**%10eko** beharapena poltsetan

Soinuko beltz eta beis kolorekoa: 64 €

Iledun soinekoa: 49,90 €

Manolefinak: 65 €

Talokidun zapatak: 95 €

Tigre estabipabua duen poltza: 60 €

Bandolera: 38 €

Lepokoa: 19 €



# Sara

Rosario, 14 - Tel.: 943 743 555 - Elgoibar



VERO MODA  
%20

VERO MODA  
arropetan %20 beharapena

# EVOKA SHOES

Errosario kalea, 35 - Tel.: 943 567 212  
www.evokashoes.com

Tiket hau ekarriz gero  
%10eko beharapena izago duzu  
erositako zapata parean!



# IRIONDO KIROLAK

MENDI ETA KALEKO KIROL MODA  
San Frantzisko, 37 Tel.: 943 74 09 56

Arcteryx alpha sl  
hybrid jacket: 350 €



Sorel joan  
of article: 182 €



Mammut Broak  
Peak Hooded  
Jacket Men: 270 €



Salomon Cosmic 4D2: 209,90 €

MAMMUT ETA ARCTERYX  
ETXEKO JAKETAN %10 BEHARAPENA  
ARGAZKIETAN ATERATZEN DIREN  
BOTEN MODELUETAN %15EKO BEHARAPENA

# CASA ASTIGARRAGA

Errosario, 16-18

Tel.: 943 743 268



TERNUA Castletown jaka: 159,95 €  
TERNUA Lagan prakak: 92,40 €



TERNUA Weeben jaka: 159,95 €  
TERNUA Arvagh prakak: 92,40 €



%25eko beharapena  
Ternua etxeke produktu hauetan



San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35

# ARAMBURU BITXIDENDA



Erosi, eta 250 €ko  
bi baleen zozketan  
sartuko zara

# Txankakua dendetan erosteak oparia dauka!



## Aurtengo gaztagilerik onenak batuko dira Elgoibarren hilaren 28an, Gabon Zahar Feria egunean

Bederatzi gaztagilek parte hartuko dute, tartean Mausitxak

**B**ederatzi gaztagilek parte hartuko dute aurtengo Gabon Zahar Feria eguneko lehiaketan. Idiazabal Jatorri Izendapenaren Batzorde Arautzailearen ardurapean aurtengo han eta hemen antolatutako hamasei ardi-gazta lehiaketako bat edo gehiago irabazi dituzten gaztagileak dira. Horietako bi estrainekoz etorriko dira Elgoibarrera: Munaingo Zabaleta S.C. eta Azkarra S.C. gaztagile nafarra. Rikardo Remirok ere ez du hutsik egingo. Hiru aldiz irabazi du Elgoibarko lehiaketa, azkenekoz iaz, eta aurtengo lau gazta lehiaketa irabazita dator, tartean Ordiziako txapelketa eta Euskal Herrikoa. Elgoibarko Mausitxa baserrikoak ere lehiatuko dira, jakina. Aurtengo hiru txapelketetan gailendu dira: Debakoan, Bilbokoan eta Legazpikoan eta Elgoibarren irabaztea zer den ere badakite.

Sari bakarra egongo da lehiari: txapela, garaikurra eta 1.500 euro dirutan. Irabazlearen izena egunean bertan jakinaraziko dute, 13:30ak aldera. Ordu horretan banatuko di-



tuzte, era berean, fruta eta barazki lehiaketako sariak ere. Gazta txapelketari lotuta, mari-daje-afaria ere antolatu dute Belaustegi jate-txean.

### Gabon zahar feria

Azoka bera da egun honetako protagonista. 8:30ean zabalduko dute, eta Kalegoen plaza, elizpea, Aita Agirre plaza, Giza Eskubi-deen parkea eta bolatokiko parkea, Lekue-

der eta Kalebarren plaza hartuko ditu. 9:30ean zabalduko dute parrokiako jaiotza, eta 11:00etatik aurrera, Elgoibar Ikastolak labeldun saiheski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan. Goizean, 11:30etik aurrera, kale kantariak ere kalean ibiliko dira, kantuan, eta arratsaldean, 18:00etan, Plazara dantzara erromeria izango da. Kalegoen plazan, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolak antolatuta.

## Urrezko ezteiak egin dituztenak omendu dituzte Jubilatuen Astean



Urrezko ezteiak egin dituzten hamabi bikote omendu ditu Elgoibarko Udalak Jubilatuen Astearen barruan. Alfredo Etxeberria alkatearen eta Jubilatuen Egoitzako presidente Jesus Mari Etxeberriaren eskutik jaso zituzten oroigarriak omenduek. Ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten 80 urtez gorakoek. 160 bat lagun elkartu ziren bazkaritan.

## Lekua **Pilar ikastetxea**



Pilar ikastetxea zegoen gunean 51 aparkaleku egingo dituzte, Foru Aldundiak zahar etxea egin bitartean. Ikastetxeko gurasoek baldintza horrekin eman zioten eraikina Udalarí, hau da, bailararako zahar etxea egiteko baldintzarekin, baina une honetan proiektua geldirik dago. Hala ere, Udalak eraikina botatzea erabaki du. Orain lursoria berdinduko dute, eta datozen hilabeteetan herritarren erabilerarako aparkalekua egkituko dute gunerekin.

## Zerbitzua **Botikak**

Botiken guardia zerbitzuetan aldaketak egongo dira 2014tik aurrera. Azken bi urteetan egunero egon da guardiako botika gauez Elgoibarren, baina 2014an Eibarko Azkue botikak (Toribio Etxebarria, 4) egingo ditu gaueko guardiak. Hala ere, 22:00etatik 24:00etara Elgoibarko Yudego botikak eskainiko du guardia zerbitzua. Egunez, Elgoibar, Mendaro eta Soroluzeko botiken artean egingo dituzte guardiak, baina zapatu goizetan beti egongo da botikaren bat zabalik Elgoibarren.

## Irudia **Tantaz tanta**



Presoen eta haien senideen eskubideen aldeko ekitaldia egin zuten zapatuan Kalgoben plazan. Tantaz Tanta, olatua irudikatzea zen helburua, eta Elgoibarren, lau tanta osatu zituzten, preso elgoibartarren kopurua, alegia. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ekitaldian parte hartu zutenei, eta horrekin batera, urtarilaren 11n Bilbon egingo den manifestaziorako deia egin diete elgoibartar guztiei.

## **Jose Rojano sukaldaria saritu dute**

Jose Rojano sukaldari elgoibartarra hiru Eguzkirekin saritu du Repsol Gidak. Jose Rojano elgoibartarra Las Palmaseko (Kanaria Handia) Santa Catalina hotelean dagoen La Terraza jatetxeko sukaldari burua da, eta Repsol Gidaren arabera, bera da Kanariar Uhartetako sukaldaririk onena 2013an. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian sona handiko jatetxeek bakarrik lortu dituzte hiru Eguzki: Akelarre, Arzak, Etxebarri, Martin Berasategi, Mugaritz, Nerua eta Zuberoak. Rojanok 43 urte dauzka. Bost urte daramatza La Terraza jatetxean lanean, eta hamar urte igaro dira Kanarietara joan zenetik. Gasteizko Gamarra sukaldari eskolan ikasketak amaitu eta gero joan zen Kanariar Uhartetara.



## **AVTren ekitaldia abenduaren 28an**

Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT gaztelaniazko sigletan) jakinarazi du protesta ekitaldi bat antolatu duela abenduaren 28rako Euskal Herriko bost udalerritan, tartean Elgoibarren. Parot doktrina indargabetzearen ondorioz, "ia 70 terrorista" laga dituztela aske salatu du AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteak. Lore eskaintza batekin irudikatuko dute 'Parot doktrina' indargabetzearen aurkako gaitzespena.

# ELGOIBARKO UDALA, ZENBAKITAN

**EAJ eta PSE-EEren botoekin onartu zituen atzo Elgoibarko Udaltzarraren Osoko Bilkurak 2014ko aurrekontuak. EHBilduk eta PPK kontra bozkatu zuten.**

**E**lgoibarko Udalak 12.889.304 euroko aurrekontua onartu du 2014rako. Aurrekontuak garatzeko orduan honako hauek izan dira jarraitu dituzten irizpide nagusiak, beti ere udal gobernuaren arabera: udal langileei eustea, herriko dinamismoa sustatzea, gizarte-politiketan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea, hirigintzaren mantenimendua eta berrikuntza indartzea, kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta heziketa sustatzea, tokiko hezkunza egiturak mantenduz. Alfredo Etxeberria alkateak egin zuen aurrekontuen inguruko balorazioa eta Elgoibarko Udalaren egoera ekonomiko-finanziarioa "oso saneatua" dagoela nabarmendu zuen. Bestera esanda, zorpetze maila "baxua" dela. Izan ere, 2014ari begira, zor bizia sarrera arruntan %1,56koa izango dela aurreikusten dute [Gipuzkoako Foru Aldundiak %95ean ezarri zuen 2014rako muga].

Aurrekontuak sailka aztertuz gero, berriaz, ikus daiteke azkeneko urteetako joera mantendu dela eta, aurten ere, Hirigintza Sailak jasoko duela Elgoibarren diru gehien: 5.296.034,94 euro.



- Elgoibarko Udal aurrekontua: 12.889.304 euro
- Aurrekontu bateratua (Udal aurrekontuari San Lazaro egoitza eta Kirol Patronatua gehituta): 15.011.707 euro
  - San Lazaro: 1.430.600 euro [Udalak ez dio ezer transferituko, berak sortutako baliabideekin eta aurreko urteetan metatutako diruzaintza gerakinarekin aurre egingo die aurtengo gastuei].
  - Kirol Patronatua: 1.086.850 euro

## SARRERA AIPAGARRIENAK

Zuzeneko zergak	3.375.000 (%26,18)
Tasa eta beste sarrera batzuk	2.236.000 (%17,35)
Transferentziak arruntak	6.962.000 (%54,01)

**Sarrerak guztira 12.889.304,12**

## GASTU AIPAGARRIENAK

Personala gastua	3.894.000 (%30,21)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.365.000 (%41,62)

Transferentzia arruntak	1.966.000 (%15,25)
- Debegesa	140.000
- Debemen	28.000
- Kirol Patronatua	395.000
- Elgoizinema	28.000
- Musika Eskola	390.000
- Musika eta Dantza Federazioa	
EMUDAFE	166.000
- DEBABA euskaltegia	144.000
- Elgoibarko Izarra	151.000
- Larrialdietarako gizarte laguntzak	120.000

**Inbertsio errealak 1.590.000 (%12,34)**

**Gastuak guztira 12.889.304,12**


## KONPARAKETA URTEZ URTE

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>GUZTIRA</b>	17.106.661,16	16.861.269,81	14.340.734,39	13.477.135,76	12.714.216,00	12.553.391	12.889.304

## 2014ko INBERTSIO NAGUSIAK

Mugiezinetan konponketak	150.000	Tren geltokitik San Rokerako igogailua	436.000
Parkimetroak	18.000	Sigman, goi-pasabidea	105.000
San Frantzisko kalean kamarak	14.000	Sigma eta Altzolan inbertsioak	100.000
Bide publikoen konponketa eta urbanizazioa	170.000	Landa lurretan lanak egitea	170.000
Maalako estaldura	300.000	Hirigintzako proiektuak idaztea	135.000

2014KO AURREKONTUAK, SAILKA	2013	2014
<b>BARNE SAILA</b>	2.478.170,17	2.463.265,09
<b>SEGURTASUN SAILA</b>	1.296.081,5	1.270.996,00
<b>HEZKUNTZA SAILA</b>	684.821,97	597.832,00
<b>KULTURA ETA EUSKARA SAILAK ETA LIBURUTEGIA</b>	1.306.119,77	1.303.222,23
<b>ONGIZATE SAILA</b>	1.078.660,42	1.093.721,57
<b>HIRIGINTZA SAILA</b>	4.318.927,61	5.296.034,94
<b>OGASUN SAILA</b> (*FFFMaren itzulketa)	505.940,32*	526.234,09
<b>GAZTERIA ETA BERDINTASUN SAILA</b>	355.298,20	337.998,20





## “Gastu soziala bermatua dago, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko baliabideak bideratuta”

Hainbat urte igaro dira krisian murgildu ginenetik eta Udal honek modu duinean pairatu ditu estuasunak. Diru sarrerak jaistearen ondorioz, alde batetik neurri zorrotzak hartu dira gastu arruntari eusteko, eta bestalde, inbertsio garestirik egin ez bada ere, herri honen azpiegiturak eta hirigintza ondo zainduta daudela esan dezakegu.

2014rako modu berdintsuan jarraituko dugu: gastu soziala bermatua dago, herriko izaera guztietako elkarteentzako diru-laguntzak orokorrean mantendu egingo dira, salbuespenak salbuespen, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko baliabideak ere bideratuta daude. Azkeneko urteetako lema *gutxiago eta hobeto gastatu* izan da.

Guztira, 12.889.304 euroko aurrekontua aurkeztu da. Aurreko urtekoarekin alderatuz, zertxobait igo bada ere, diferentzia nagusienak hauek dira: 2013an bukatutzat eman da Aldundiarekin genuen zorra, 2009ko foru fondoaren saldo negatiboaren azken zatia ordaindu da, hiru urtetan zehar 500.000 euro inguru suposatu izan duena. 2014ko foru fondo bere osotasunean kontsignatu da, ikusita 2013koaren likidazioa ez dela aurreko urteetan izan den moduko negatiboa izango (2013an 372.000 euro azpitik kontsignatu zen). Inbertsioetara aurreko urtean baino 500.000 euro gehiago bideratu dira. Eta azkenik, 2014ko aurrekontua orekatzeko ez da mailegurik aurreikusi behar izan (2013an 434.000 euroko mailegu bat kontsignatu zen, nahiz eta azkenean ez

den gauzatu).

Inbertsioei dagokienez, hasteko, 1.590.000 euro jaso dira. Nabarmentzekoak honakoak dira: 435.000 euro tren geltokitik Azkue-San Roque auzora igogailu bat egiteko, 300.000 euro Maalako estaldurarako, 105.000 euro Sigmako goi pasabidea konpontzeko eta 100.000 euro Sigman eta Altzolan inbertsioak egiteko. Gainontzeko inbertsioak errepikakorrak dira, edo dotazio txikiagoak dituzte.

Bestalde, orain dela urtebete, gaur indarrean daukagun 2013ko aurrekontua onartzean, Bildurekin adostu genituen emendekin eta konpromisoak betetzen ari garela esan nahi dugu. Akordio haren ondorioz guztira 728.000 euro adostu ziren, honela banatuak: 128.000 euro 2013ko aurrekontuko hainbat sailetan txertatu ziren, 300.000 euro 2014an Maalako estaldurarako lotu ziren eta auzoetan inbertsioak egiteko 2013tik 2015era urtero 100.000 euro emateko konpromisoa hartu genuen. Dagoeneko %75a gastatuta dago, edo bidean. Aurten, berriz, oposizioko alderdiek ez dute inolako emendekin edo ekarpenik aurkeztu. Elgoibarko Udalak bi erakunde autonomo ditu bere kargura, biak osasuntsuak: Udal Kirol Patronatua eta San Lazaro Egoitza. Lehenengoak Udaletik 395.000 euroko transferentzia jasoko du 2014an, azkeneko urteetan jasotako antzeko kopurua, eta bigarrenak bat ere ez. Adierazgarria da, inolako defizitrik sortu gabe, biek autofinantziaziorako gaitasuna dutela.



## “Ongizate Sailean ez dago apenas jaitsierarik, eta alde horretatik, ondo eginiko aurrekontuak dira”

Ongizate Saileko buru gara gu, eta hor ez dago apenas jaitsierarik, eta alde horretatik ondo eginiko aurrekontuak dira. Espero dut datorren urtean Elgoibarko familiak egoera hobean egotea, eta diru-laguntzak behar duten familia guztiei iristea espero dut. Hamaika gauza egongo dira egiteko, baina egungo egoeran iruditzen zaigu langabezian daudenei eta baliabide gutxien duten herritarrei laguntzea izan behar dela lehentasuna. Hirigintza kontuetan, aldiz, ez zait iruditzen horrenbesteko beharrik dagoenik. Beharbada egongo dira hobetzeko kaleak, auzoak edo bestelakoak, baina garrantzitsuena familiei laguntzea da.

Hirigintza Sailean Pilarreko zahar etxea da proiekturik garrantzitsuena. Populazioa zahartzen ari da, eta gure aitona-amonentzako onena lortu behar dugu. Kasu honetan, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpe gaude, eta Bilduk momentuz ezezkoa eman dio proiektuari. Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko dirua tantaka dator, eta egoera horretan oso zaila da ezer egitea.

Berrikuntza eta hobekuntzen artean Sigma eta Altzolak dituzte beharrik handienak. Larrialdi kasuetan, adibidez, Sigmako etxe askotara ezin da iritsi ambulanzia, eta hori gauza larria da. Urazandin, bestalde, izotza egiten duenean auzokideak labaindu egiten dira, eta beste hainbat auzotan umeentzako parkeak ere behar dira.

Baina aurrekontuetan ez dago igoera nabarmenik aurten, beraz, ezingo da dena egin.

Denerako dirurik ez dagoenez, lehentasunak jartzea komeni da, eta nire ustez lehentasunekoak dira langabetuak, industria, gazteak, hilabete amaierara iristen ez diren familia behartsuak... Horren harira nabarmendu behar da, 2014ari begira ez ditugula zergak igoko, eta hori Udalak egindako ahalegin bati esker izan dela azpimarratu behar da.

Herriari begira lan egin behar dugunean, ildo politikoak alde batera utzi eta Udalean gauden alderdi guztiek bat egin beharko genuke, eta Bilduk, adibidez, Pilarreko zahar etxeari buruzko mozioguztietan kontra bozkatzeko du. Bildu ez balitz Foru Aldundian egongo, bera izango zen Pilarreko zahar etxearen alde egiten lehenengo! Eguneko Zentroa ere txiki geratu da, eta baita San Lazaro egoitza ere, baina herritarren beharrik kontuan hartu beharrean, politika lehenesten dute.



## **“Ez gaude ados. Ez aurrekontuak prestatzeko prozedurarekin eta ezta 2013koen kudeaketarekin”**

**E**zeta eman diegu Udalaren aurrekontuei. Zergatik? Ez gaudelako EAJ eta PSE-EEren artean adostutako aurrekontuekin ados, ezta aurrekontuak prestatzeko prozedurarekin eta 2013ko aurrekontuen kudeaketarekin ere.

Orain dela urtebete baietza eman genien 2013ko udal aurrekontuei arlo gehienetan egin genituen ekarpenak (ongizate, hirigintza, kultura, euskara, gazteria, berdintasuna, hondakinak...) onartu zituztelako. Baiezkoa ematerakoan genituen aurreikuspenak ez dira inolaz ere bete. Emendakinei lotutako aurrekontuen %30a ere ez dute erabili, orokorrean aurrekontuen %83a gastatu dutenean. Urtean zehar emendakinetan jasotako egitasmoak garatzeko landu ditugun proposamenak gehienetan ez dizkigute aintzat hartu ere egin, eta zerbait egitera heldu diren kasuetan gurekin kontatu gabe izan da. Sarri prentsaren bitartez jaso dugu Udalaren asmoen berri.

Nahiz eta gure ekarpenek hainbat ondorio positibo izan (ongizateko laguntzak igo egin dira, euskararentzakoak mantendu, aisialdirako gune estalia aurrera doa, pobreziaren aurkako egitasmoa poliki, baina aurrera doa...) garbi esan behar dugu ekarpenen %30eko betetze-mailarekin eta elkarlanari ateak ixten dizkion kudeaketa eredu honekin egiten dugun balorazioa negatiboa dela.

Udal gobernuak ez ditu bete aurrekontuak onartzerakoan hartu zituen konpromisoak.

2014ko aurrekontuei dagokionez berriro esan behar dugu herritarren partaidetzarik gabe osatutakoak direla. Aurrekontuak egiteko orduan ez da ezertarako kontatu herritarrekin, ez eta eragile sozialekin ere. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko ezinbestekoa den gardentasuna eta informazioa ez dira inondik inora ageri. Gure desadostasunak ez dira mugatzen 2013ko aurrekontuen betetze mailara eta 2014ko prestatzeko erara. Izan ere, 2014ko aurrekontu-proiektuarekin ez gaude ados. Ezin gara ados egon, aurrekontu osoak %3ko igoera izan duenean gizarte ekintzetara zuzendutako egitasmoetarako eta diru-laguntzetarako aurrekontuen jaitziera proposatzen duen aurrekontu batekin.

Premisa hauek eskatzen dizkiogu aurrekontu bati, are gehiago, egungo egoeran:

- Zerbitzu publikoak sendotuko dituen eta gutxien duten elgoibartarren eskubideak bermatuko dituen eredia garatzea.
- Jasangarritasunean oinarritutako herri garapen orekatua bultzatzea.
- Gure herriak eta herritarrak saretzea, Euskal Herria behetik gora eraikiz.



## **“Diru partida asko oso puztuak daude, eta asko doitu zitezkeen dirua beste behar batzuetarako erabiltzeko”**

**E**z dut EAJk eta PSE-EEK aurkeztu didaten proposamenaren alde egingo. Beti bezala, aurrekontuak ez dira argiak eta gardenak, diru partidak oso orokorrak eta zehatzgabeak direlako, eta ondorioz ez dago jakiterik EAJk eta PSE-EEK zer egingo duten elgoibartarren diruarekin. Niretzako diru partida asko oso “puztuak” daude, eta iruditzen zait asko doitu zitezkeela, diru horren zati bat beste behar batzuetarako erabiltzeko eta diru horrek ez dezan alkatearen poltsikoan amaitu.

EAJ eta PSEk ez dute industriaren, enpleguaren, hezkuntzaren edo eta gazteriaren aldeko apustua egiten, diru partidak gutxitu egin direlako alor horietan. Lotsagorritu egin beharko lirakeke, eta bereziki PSE, enpleguari dagokionean Elgoibarren bizi dugun egoera zein den jakinda. Ez dute merkataritzaren alde egiten, eta ezta kulturaren, euskararen, gizarte-zerbitzuen eta berdintasunaren alde ere, gutxi-gorabehera antzera gelditzen direlako. Hirigintza Saileko gastuak handitzearen aldeko apustua egiten dute EAJk eta PSE-EEK, berez gaizki ez dagoena, beti ere elgoibartarren eguneroko beharrei behar besteko arreta jartzen bazaie. Eta hori da, hain justu ere, gertatzen dena: beste behar batzuei ez zaiela arretarik jartzen. Eta horren adibide da aztertu ere ez dutela egin PPK jan-geletako edota testu-liburuen gastuetarako laguntza handitzeko

egindako proposamena. Entzun nahi izan balidate, erakutsi ahal izango nieke gastuetarako diru zorroa gutxituta bakarrik lortuko genukeela denak aintzat hartzea. Baina Gobernu hau harrokeriaz ari da lanean aspaldian; denbora luze darama diru-laguntzekin eta inbertsioekin borondateak “erosten”, eta okerragoa dena, denbora darama “bere jokoa” jarraitzen ez dutenak etsaitzat hartuz.

Baina nahiz eta bakarrik gelditu, ez naiz inor txalotzen hasiko, horrek garai zail hauetan Udalak elgoibartarrak ahaztea eskatzen badu. Nahiago dut bakarrik gelditu eta neure proposamenen alde egiten jarraitu, amore ematea baino, sekula ez baitut halakorik egin. Beste batzuek gogoeta egin beharko dute euren idea eta proposamenei leial izaten jarraitzen duten bai edo ez.

Hurrengo hauteskundeetan kontuak eman beharko ditugu gu guztiok, eta beharbada, oker egon naiteke, baina nahiago dut aurrekoetan botoa eman zidatenek egurra ematea nire proposamenei uko egitea baino. Gero eta garbiago daukat Elgoibarren kolore aldaketa bat behar dela agintean, alfonbra jaso eta alkate honen kontu ilun eta arraro asko garbitzeko. Hala izatea espero dut.

## Erretratu zaharra



1977

Aste honetako erretratu zaharra Mari Carmen Azkuek lagatakoa da. 1977an ateratako argazkia da honakoa, eta bertan azaltzen diren emakumeak garai hartako katekista taldekoak dira. Noizean behin bidaiak egiten zituzten, eta honakoa, Erromara joan zireneko argazkia da. Izugarri gustatu zitzaizen Italiako hiriburua, eta oso ondo pasatu zutela kontatu digute.

**Zutik:** Mari Cruz Arana, Alfonso Astaburuaga (†) (apai-za), Conchita Arrilaga, Karmele Gabilondo eta Mari Carmen Azkue. **Makurtuta:** Maria Pilar Iribarren, Mari Tere Elkoroiribe (†) eta Angelita Aristondo (†).

## ibai-ondo erretegia

943 256 028  
649 963 892



- EGUNEKO MENUAK
- MENU BEREZIAK
- MENU BEGETARIANOAK
- MENU ZELIAKOAK

**65 €**

## Gabon Zaharreko Menua

*Ongi Etorriko Koktail-a  
Iberiko aukera*

*Era askotako fritoak*

*Onddo nahaskia*

*Otarraixkak plantxan*

*Txirlak eta kokotxak*

*Bakailaua saltsa Berdean*

*Txuleta / Azpizuna*

*Postrea, kafea eta edaria*

*Xanpaina eta mahatsak barne!*



**Lanbroa**

Pedro Muguruza, 5  
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

- ★ Menuak
- ★ Plater konbinatuak
- ★ Bokotak eramateko
- ★ Pintxoak

**Gabon  
zoriontsuak  
herritar  
guztioi!**



## 103 milioi euroko eskaria lortu du DanobatGroupek, erreminta-makinaren inoizko kontratu handiena

Hiru eskari dira, eta eskarien %66 hurbileko inguruan gauzatuko direla nabarmendu dute

**A**lbiste pozgarri bat eman du DanobatGroup kooperatiba taldeak ekonomiaren garai ilun hauekarako. Hiru kontratu lortu ditu trenen sektorean, eta hirurak horiek 103 milioi euro egiten dute guztira. Elgoibar-ko kooperatibak inoiz lortutako kontratu handienak dira, baina baita, era berean, Euskal Herriko erreminta-makinaren sektorean lortu diren handienak ere.

Erreminta-makinaren sektorean liderra da DanobatGroup Euskal Herrian eta Espainian, eta Mondragon Korporazioko kidea da. Trenen sektorean kontratu handiak lortu izan ditu azkeneko urteotan. 2008an, esate baterako, 50 milioi euroko eskaria lortu zuen Errusian, TVSZ enpresarentzat *bogie* eta treneko ardatz muntatuak egiteko linea automatizatu eta malgua diseinatzeko. Ordura arte, erreminta-makinan lortutako kontratu handiena izan zen. Geroago, abiadura handiko trenetarako ardatzen fabrikaziorako munduan dagoen "lerrorik aurreratuenaz" hornitu zuen Lucchini SP enpresa italiarra.

### Lidergoa sendotzen

Meataritzaren sektorean mundu mailan liderrak diren Australiako bi enpresa ospetsuekin lotu ditu orain izenpetu dituen kontratu hauek bi. Lehenengo kontratua bagoien *bogie* eta *wheelset*-a (muntatutako ardatzak) zaintzeko eta konpontzeko giltza eskurako tailer bat hornitzeko da, eta bigarrena, berriz, muntatutako ardatzak zaintzeko lerro automatiko baterako. Bata zein bestea meategiaren eta portuaren arteko garraioa egiten duten bagoietarako direla zehaztu dute kooperatiba taldeko ordezkariak. Proiektu bi horiei "modu egokian erantzun ahal izateko", lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute Marand Precision Engineering enpresa australiarrarekin. Australiako enpresa hori lerroak dagozkien tokian ezartzeko lanez arduratuko da, baina DanobatGroupek gainbegiratu du lana.



Errusiako TVSZ enpresarako bogie eta muntatutako ardatzen fabrikaziorako linea.

Hirugarren kontratua Indiako IRCON etxearekin lotu du. Kontratu horren bitartez lerro automatiko bat hornituko dute bi dairen trenetarako muntatutako ardatzen fabrikaziorako.

Eguaztenean eman zuten albistearen berri, eta azkena lortutako hirurak eskari hauek DanobatGroupek azken urteotan sektorean espezializatzeko egin duten apustuaren eta balio erantsi handiagoko eskaintzeko egindako apustuaren emaitza izan direla esan zuen Iñigo Ucin DanobatGroupeko zuzendari nagusiak. Alemaniako lehiakideei aurrea hartu die beste behin DanobatGroup kooperatiba taldeak, eta hori giltza eskura erako soluzioak saltzen egin duen ahaleginaren ondorio dela nabarmendu zuten arduradunek. Era berean esan zuten kontratu hauek argi erakusten dutela DanobatGroupek asmatu egin duela azkeneko urteotan I+G alorrean bere salmenten %7 baino gehiago inbertitzean.

### Eskarien eragina inguruan

Eskari hauei esker, Ucin-ek esan zuen urte pasako lana izango dutela Danobatek 60 bat lagunek. Kontratu hauek, era berean, jakina, eragin handia dute kooperatibaren hurbileko inguruan. Izan ere, eskari guztien %66 inguruan egingo direla aurreratu dute taldeko ordezkariak, eta horrez gain, ehuneko horren herena egiteko inguruko hornitzaileak azpikontratatu dituztela. Normalean DanobatGroupekin lan egiten duten hornitzaileak, beraz, zorionekoak dira.

Gaur egun ere munduan lider da DanobatGroup tren sektorerako giltza eskura erako lerroen horniketean, baina izenpetu berri dituen hirurak kontratu hauekin lidergo hori sendotzea lortu du. Tren, aeronautika, energiaren sorkuntza, eta petrolio eta gasaren sektoretarako, giltza eskura erako instalazioen hornikuntza da gaur egun kooperatiba taldearen zorroaren zati handiena. Etorrizun hurbilari, beraz, itxaropenez begiratzeko moduan dira.



Elgoibarko Izarraren aldeko

# TONBOLA

Abenduak 24, 11:00etatik 14:30era  
Kalegoen plazan

3.000 boleto (1€ bakoitza)  
eta 1.000 oparitik gora!

urteari



errepassoa



# urtarrila

Consensus Kripito 19 urteko kenyar gazteak irabazi zuen Mugertza krosa gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, Gelete Burka etiopiarra izan zen azkarrena. Aurten ere, Euskal Herriko eta nazioarteko korrikalaririk onenetakoak ekarri zituzten Mintxetako atletismo taldekoek Mugertza krosera.



Luizi batek nahasmen handia sortu zuen Elgoibarren. Urtarrilaren 20an gertatu zen luizia 634 errepideko 58. kilometroan, eta egunetan etengabe jausi ziren harriak. Mendi magala sendotzeko lanengatik herri barrutik bideratu zuten trafikoa.



Deba ibaiari begira pasatu genuen urtarrilaren 15a. Elgoibar-ko eta Mendaroko udalek alerta deiak jaso zituzten SOS Deiak zerbitzutik, eta urak hartzeko arriskuan zeuden lekuetatik autoak erretiratu arazi zituzten, baina zorionez, urak ez zuen aparteko kalterik eragin. Elgoibarren, Deba ibaiak gainezka egin zuen Andikanotik Maltzagarako bidean, eta baita Altxolan ere. Mendaron, Garagartza auzoan pasatu zituzten estuasun handienak, Trinitate kalean ura pilatzen hasi zelako.



**elgoibar ikastola**  
zuentzat eta zuekin eguneroko jardunean etorkizuna eraiten

**HAIR'S**  
ILEA PAINDEGIA  
San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

**ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:**

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €



Urtarrilak 26an, butano-desafioa jokatu zuten Mendaron hiru lagunek: Jurdan Ezenarro, Unai Salegi Sarubek, Andoni Zubiaurre Gorixok. Butanoa sorbaldan hartu eta herriko enparantzatik Lizarpera nor azkarrago iritsi jokatu zuten, eta Jurdan Ezenarro nagusitu zen, 42:37ko denborarekin. Bi minutuko alde atera zion Gorixori. Sarubek proba laga behar izan zuen, ondoezik.



Jon Iriondo eta Guillermo Hijano Arreiturre institutuko ikasleak saritu zituzten Azkue Fundazioaren komiki digitalen lehiaketan. Sare sozialetan pribatutasunaren gaia landu zuen Elgoibarko bikoteak.



Diru bilketa kanpaina hasi zuten Elgoibarren hildako jaioberri senegaldar baten gorpua jaioterrira eramateko. Mamadou eta Amy hildako mutikoaren gurasoek eskerrak eman zizkieten kanpainan lagundu zuten guztiei, BARRENEK bidez.



Interneten alorreko Argia Saria jaso zuen *dantzan.com* atariak, *bertsoa.com*-ekin batera. "Biak dira kulturaren alor zehatz bati bete-betean eskainitako webguneak eta erakusten dute gaur egungo teknologiak erabiliz, baliabide gutxi eduki arren gauza handiak egin daitezkeela", nabarmendu zuen epaimahaiak.



**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
**ITURGINTZA**

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea  
 Erakusketa/Faxa: 943 531 847  
 Floren Cld: 647 463 436  
 E-posta: [ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**Urte berri on!**



BEROGAILUA ● GASA ● GASOILA ● AIRE EGOKITUA ● ALTZARIAK  
 MANPARAK ● OSAGAIK ● GREMIOEN KORDINAZIOA ● ERREFORMAK



otsaila



Iñaki Hernandez IMHko ikaslea Lanbide Heziketako World Skills Spain olinpiadetarako sailkatu zen. Maiatzean Eusko Skills lehiaketa irabazita sailkatu zen Hernandez Madrilgo kanporaketarako, CNT torneaketan EuskoSkillsen urrezko domina irabazita. Madrildik beste urre batekin itzuli zen hil bukaeran.



Otsailak 4an, kamioilari baten gorpua atera zuten Deba ibaitik, Arriaga auzoan. Lekuko batek eman zuen abisua SOS Deiak larrialdi zerbitzura. Lekuko horren arabera, kamioitik irten, pauso batzuk oinez egin eta autopistako zubitik Deba ibaira salto egin zuen kamioilariak. Rodisa enpresaren pare horretan lokalizatu zuten hilotza, ibai ertzeko sastraka artean.

Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandezek irabazi zuen Gipuzkoako kros txapelketa, alebinetan. 2.065 metroko ibilbidea 7:30eko denboran egin zuen Martinezek. Eskolarteko Euskadiko Txapelketako taldekako sailkapenean, bestalde, hirugarren egin zuten infantilen mailako Mintxeta Atletismo Taldeko neskek.



Etxe kaleratzeak etetea exijitzeko herri ekimena sortu zuten Debabarrenean. Kaltetuekin harremanetan jarri, haiei elkartzuna adierazi, eta egoeraren larria salatzeke sortu zuten taldea, eta herriz herri mozioak aurkeztu zituzten udaletan.

**ZORIONAK eta URTE BERRI ON!**

**Elgoibarko Haurreskola**  
943 742 141

HaurreSkolaK

www.haurreSkolaK.net



Otsailak 18an, Juan Jose Zulaika hil zen, Boiseko Oinkari Dantza Taldeko pandero jolea. Simon Zulaika Bergaretxe eta Flora Ziaran Zubiaurren seme Juan Jose 1945. urtean jaio zen Mendaroko Sarobe baserrian, eta 23 urte zituela emigratu zuen Ameriketako Estatu Batuetara. Koloneko minbiziarekin hil zen.



Eneko Iturbe elgoibartarrak Euskadiko Diseinatzaile Gazte Onenaren Lehia-keta irabazi zuen. Zortzi diseinatzaile iritsi ziren finalera, eta epaimahaiak Eneko Iturberen *Un desorden perfecto* izeneko bilduma nabarmendu zuen denen artetik. Otsailaren 28an Espainiako Diseinatzaile Gazteen lehiaketan parte hartu zuen.

Euskal Herriko banakako eta erlojupeko Mendi Eskiko Txapelketa irabazi zuen Iñigo Larizek. Jume eskiatzaile frantziarraren atzetik sartu zen Lariz, eta Jabi Tirapu nafarra sailkatu zen hirugarren. Eñaut Izagirrek brontzezko domina eskuratu zuen, promesetan.





**San Bartolome 30,**  
Tel.: 680 724 060  
Plaza txikitik ere badu sarrera!  
[ibarrene@hotmail.es](mailto:ibarrene@hotmail.es)



**ARTISAU-OGIA  
EGUR-LABEAN  
EGINDAKOA**

**KONTSERBAK  
ETA ARDOA**

**GABON ZORIONTSUAK!**







# martxoa

Administraziorako Auzi Epaitegiaren kontrako apelazio helegitea aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak, banderen auzia zela-eta. Auzitegi horrek emandako epaiak zioen Elgoibarko Udalak ez zuela banderen legea bete, Espainiako bandera ez zuelako udaletxeko aurreko aldeko fatxadan jarri. Udalak arrazoitu zuen Espainiako bandera eta gainerakoak pleno aretoko balkoi batean jarri zituztela, Giza Eskubideen plazara ematen duen balkoian.



Martxoak 2an, Logroñoko kartzelara martxa antolatu zuten Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformakoe eta *Bateragune auzian* kartzelatutakoen senideek



Martxoaren 15ean bete zituen Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50 urte. Elgoibar euskaldunagoa izateko lanean jardun du urte guzti hauetan, eta helburu hori lortzeko prestatu izan ditu proiektu eta egitasmo guztiak. Urteurrena ospatzeko, urte osoko egitaraua prestatu zuten, eta martxoaren 15ean aurkeztu zuten, musika eskolako auditorioan, sorreratik hona lanean jardun zuten 50 lagunekin. Martxoaren 15ean bertan, *Merezi zaban* ekitaldia egin zuten Herriko Antzokian, baina asteburu osoko jaia izan zen. *Merezi zaban* ekitaldikoa da argazkia.



**Gizonezkoen ile-apaindegia**  
**JOSE ANTONIO**

Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30  
Elgoibar  
Tele.: 943 741 492



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak

**Hasi urtea beste ilekera batekin!**

**Gabon zoriontsuak!**



[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)



Eman euskara elkarri lempaean iritsi zen Korrika Elgoibarrera martxoaren 20an, eta ongi-etorri beroa egin zioten elgoibartarrek. Herri osoa zeharkatu ostean, Azkoitirantz hartu zuten korrikalariek, Baionarako bidean. Hamaika egunez, etenik gabe, 2.550 kilometro inguru egin zituen euskararen aldeko martxak.



Liga txapelketa irabazi zuen CD Elgoibarko nesken taldeak. Liga txapelketa amaitzeko partida baten faltan liga irabazia zuten neskek. Euskal Ligan jokatzeko txartela lortu zuten.



Martxoak 22an Mendaroko Garagartza auzoko bi etxe zahar bota zituzten: Manuel Bidaburukoa zenaren etxea eta Antzar-kua, eta ilara horretan, etxe bakar bat gelditzen da orain tente: Txikitxonekoa [Gartzianekoa botata zuten aurrez]. Itxuraldatzen ari da auzoa, baina oraindik tente eusten diote Mendaro zaharreko eraikin batzuk: Barbernonekoa, Moxuanekoa, Artetxe, Antonanekoa, Eliz-aurre, Armuno, Linanekoa, Kontxanekoa, Gabixolanekoa, Txoperranekoa, Abarkaterokoa, Mateonekoa, Jazintanekoa eta Kotxerokoa.



**BLAK**  
 ileapaindegia  
 San Inazio, 4  
 Tel.: 943 742 725  
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
*Gabon zoriontsuaki!*

**CORDON VILARCHAO**  
 DEKORAZIOA  
 Kanpo eta barneko estaldura  
 Zolak ezartzea  
 Lantekua: egut, aluminio, PVC  
 Pintura orokorra  
 San Roke, 7 beheko  
 Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 modalak  
 Tel. 943 749 570

**USATORRE**  
 Taberna  
 San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99  
**CARBON ZORIONTSUAK ICARO!**

**MEKANOSA**  
 Errosario, 27  
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



# apirila

Apirilaren 1ean Elgoibarren hasi zen Euskal Herriko Itzulia, eta jaieguna izaki, sekulako jendetza batu zen bai irteerako unean zein arratsaldean, helmugan. Helmugara, hamazazpi laguneko taldea iritsi zen aurrena, eta Simon Gerrans (Greenedge) izan zen azkarrena. Peter Velitsen (Omega) aurretik. Txurrukak mendiko liderraren mailota jantzi zuen. Biharamunean Elgoibartik abiatu zen lasterketa, Gasteizerantz.



Apirilaren 6an Euskadiko jubenil nesken txapelketa jokatu zen Elgoibarren, eta Sanloko Lauko taldeak hirugarren egin zuen. Zarauzko Aiala taldeak irabazi zuen txapelketa, eta Etxeberriako Kuku-llagak egin zuen bigarren.



Jabi Olaberria orozkoarra eta Maite Maiora mendaroarra nagusitu ziren Mendaroko Mendiko Lasterketan. Maiorak errekorra ontzea lortu zuen, gainera (2:18:26). Guztira, 150 lagunek parte hartu zuten.



**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK  
MANU LEIZABE LOYOLA

**GABON ZORIONTSUAK  
ETA URTE BERRI ON!**

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD  
Salmenta eta zerbitzu teknikoak  
Errosario, 8 - Tel. 943 74 00 54



Apirilaren 14an, liga irabazi zuen Concepto Egile areto futbol taldeak, Zierbena bigarren sailkatuaren kontra hiruna berdinduta. Elgoibartarrak galtzen hasi ziren, baina lortu zuten buelta ematea. Bukaeran, festa nagusitu zen Olaizaga kiroldegian.



Bost urteko etenaren ostean, Urnabitza Motoklubak Elgoibarko Enduro txapelketa antolatu zuen. Euskal Herriko Enduro Txapelketa proba puntuagarria izan zen. Ia ehun motorzalek hartu zuten parte.



Iñaki San Martin Soarte-ren lan bat saritu zuten GaudiRfoto argazki lehiaketan. Bilbon ateratako argazki bat aurkeztu zuen Soartek Hiriko Paisaiak atalerako, eta zilarrezko domina eman zioten. Nazioarteko lehiaketa da GaudiRfoto, eta 2013an 60 herrialdeko 500 argazkilari baino gehiagok parte hartu zuten.

# JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON !!

HERRI ESKOLA  
GUZIONA, ZEURIA, HERRIARENA



ELGOIBARKO  
HERRI ESKOLA





maiatza



Gaztelaniazko haur eta gazte literatura alorrean Euskadi Saria jaso zuen Iban Barrenetxea ilustratzaile elgoibartarrak. Gainera, bere lanak bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen, Elgoibarko Kultur Etxean ikusgai jarri zituen-eta erakusketa batean. Azken hiru urteotan hamabi bat liburu ilustratu ditu dagoeneko, eta horietatik bi berak idatzi ditu gainera. Poliki-poliki bidea egiten ari da literaturan.

San Lazaro egoitzako langileek bost eguneko greba egin zuten apirilaren hondarretan, eta protestak eraginik izan ez zuela-eta, mugarik gabeko lanuztea hasi zuten gero, maiatzaren 13an. "Hitzarmen duina" eta adinekoen zentroetan eraginik ez izatea eskatzen zuten oinarian. 45 eguneko grebaren ostean, ekainaren 19an itzuli ziren lanera San Lazaro egoitzako langileak, Samsic enpresarekin akordioa izenpetuta.



Gernika Saria Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurentzat. "Bakeari egindako ekarpenagatik" saritu zituzten Gernikan Arnaldo Otegi ezker abertzaleko buruzagia eta Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea. Sari banaketa ekitaldian Jose Mari Gorroño Gernikako alkateak esan zuen "elkar-ulertzea" bultzatu dutela bai Egigurenek eta bai Otegi, "ideologikoki elkarrengandik urrun egon arren". Otegi preso dagoela-eta, Jesus Egigurenek uko egin zion saria berak jasotzeari, eta bien alabek, Miren Egigurenek eta Garazi Otegi, jaso zuten saria.



Julia Agirre mendaroarrak hirugarren urtez irabazi zuen Gipuzkoako Karting Kopako txapelketa. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Vilariño Motorsport enpresak antolatutako txapelketa, 12 eta 15 urte arteko 65 neska-mutilek hartu zuten parte eta Julia Agirre nagusitu zen. Hirugarrenagoz irabazi zuen arren, aurtengo garaipena "oso garrantzitsua" izan zela nabarmendu zuen Juliak: "Aurrera jarraitzeko kemena ematen duen garaipenetakoa da, diru arazoak direla-eta karting txapelketa gutxitan izan dudalako parte hartzeko aukera".



**Gabon zoriontsuak!**

**ARBELOA**  
INMOBILIARIA

San Frantzisko, 34  
Tel.: 943 748 427

[www.inmoarbeloa.com](http://www.inmoarbeloa.com)

**ZURE ALDE**  
**ZA**  
ABOKATUAK

Gabon zoriontsuak!

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.  
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

**Iñaki Gil Azpilicueta**      **Ignacio Vazquez Gonzalez**  
Jausoro Plaza, 3 behea      e-mail: [zurealde@telefonica.net](mailto:zurealde@telefonica.net)  
Tel.: 943 531 351      20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1      Tel: 943 741 189

**Maria Urizar**


- Ilea-paindegia  
- Solariuma

Gabon zoriontsuak!

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
[mariaileapaindegia@hotmail.com](mailto:mariaileapaindegia@hotmail.com)



Petachos antzerki konpainia omendu zuen Taupadak maiatzaren 3an. 36ko gerra ondorenean Elgoibarren antzerkigintzan jardun zuten lagunak omendu zituen Taupada antzerki taldeak Herriko Antzokian eskaini zuten arte eszenikoen agerraldiaren bukaeran. Antzerkiaren iraganaren eta orainaren arteko besarkada izan zen. Petachos konpainiako antzezle izandakoak igorazi zituzten oholtzara eta Angelo Iriondok eskerrak eman zituen guztien izenean.



Concepto Egile areto futbol taldeak Bigarren Mailara igotzea lortu zuen. Bartzelonako Montcada taldea nagusitasunez gainditu zuen igoerako kanporaketan. Bartzelonan 2-3 irabazi zuten, eta 6-4 Elgoibarren jokatu zuten itzulerako partiduan. Zoritxarrez kantxan lortu zuten igoera ezin izan zuten gauzatu, ezin izan zutelako maila bat gorago jokatzeko aurkонтua osatu.



Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen Sanloko Tecnifuelle eskubaloitza taldeak. Elgoibarren, Olaizaga kiroldegian, jokatu zuten mailaz igoetzeko kanporaketa, eta azken partiduan BM Valladolid taldearen aurka 26 eta 27 galdu arren, beste bi partidak irabazita eskuratu zuen txapelketa Tecnifuellek. Emakumezkoen eskubaloiko dibisio gorenetik urrats batera jokatzen dihardute 2013-2014 denboraldian.



Ondo pasa jaiak!  
**IRATXO**  
 ROCK-KAFEA  
 San Frantzisko, 41 · Tel. 943 740 257



URDAITEGIA - SANARIDENDA  
**DORI**  
 Emakume K. 28 ZK, Tel. 943 74 11 52  
 ELGOIBAR  
 Ondo pasa eguberrietan!



**karkizano**  
 San Francisco, 14  
 Tel.: 943 740 549  
 Elgoibar

**estetikaalire**

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa
- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* \*\*\*

Upseiz zaharra, 1 beheko  
 Tel.: 943 531 636  
 Elgoibar





# ekaina

Elgoibarko Swislan enpresak *Bai industriari!* errekonozimendua jaso zuen. Debegesak Ekintzaileen Eguna ospatu zuen maiatzaren 28an, Debabarreneko pertsona ekintzaileen lana eta esfortzua aitortzeko, eta sarierako bat, *Bai Industriari!* errekonozimendua, Elgoibarko Swislan enpresak jaso zuen, industria sektorean berrikuntzaren alde egiteagatik, sektore detergenteetan lan egiteagatik eta Debabarreneko beste enpresekin lankidetzan aritzeagatik nabarmendu zuten.



Google Maps enpresako autoa Elgoibarren barrena ibili zen ekainaren 4an irudiak hartzen. Google Map-ek eskaintzen duen funtzio ezagunetarikoa da Street View. Munduko edozein kale edo bazterren 360 graduko ikuspegi panoramikoak eskaintzen ditu aplikazio honek, eta Elgoibarkoak ere eskainiko dituzte hartu zituzten irudiak argitaratzen dituztenean.



200 bat euskaltzale batu ziren ekainaren 1ean Elgoibarren, Mintza Egunean. Elgoibarko lizarrak 50 urte egin dituela-eta, Elgoibarren ospatu da aurten Mintza Eguna. Mintzalagunen jaiak 200 bat lagun batu zituen.




**NAVA**  
INPRIMATEGIA  
Santa Ana, 44 - ☎ 208  
Telf. eta Faxa: 943 744 451  
E-mail: nava@euskalnet.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Gabon zoriontsuak!*



Tel.: 943 741 011

**URTE BERRI ON!**

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

**Zatoz informazio eske!**



Hondakin organikoa eta errefusa garraiatzeko transferentzia gunea inauguratu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak Arriaga auzoan. Debagoienan eta Debabarrenean organikoa eta errefusa biltzen duten kamioiek gune berri honetara eramango dituzte hondakinak, eta gero materia hori guztia dagokion tokira eramango dute kamioi handiagoetan. Guneak 8.500 metro koadro ditu, eta 1,4 milioi euroko kostua izan du.



Toletxegaineko pasabidea zabaldu zuten ekainaren 19an. Bi igogailu eta eskailerak jarrituzten Pedro Mugu-ruza etorbidea eta Gabriel Krutzelaegi kalea lotzeko.



Patxi Garcia elgoibartarra aukeratu zuten presidenteorde Mensa supergaituen erakunde-  
dean, eta erakundeak duen nazioarteko zuzendaritza batzordeko kide izateko ere aukeratu zuten. Supergaitu edo talentu aparteko pertsonak batzen dituen nazioarteko erakunde handiena da Mensa.



Kalamua guraso elkarteak lehen saria lortu zuen Guraso Elkarteen hezkuntza-jardueraren lehiaketan. Elgoibarko Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak bi egitasmo aurkeztu zituen lehiaketara, eta horietako bat nabarmendu zuen EHIGEK (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak), *Urtantak, poliki-poliki blai egiten* izenekoa.

**ZEZEN-BIDE**  
AUTO ESKOLA

**ORDUTEGIA**  
09:45etatik-12:15era  
15:00etatik-20:30era

*Gabon zoriontsuak!*

**INFORMA ZAITEZ!  
AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!  
IKASTARO TRINKOAK!**

**Euskarazko eta gaztelarazko klaseak  
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela**

San Frantzisko, 52 behea  
Tel. 943 742 720 - 20870 ELGOIBAR

**ASESORIA**  
**GOAR**

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Fixa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
asesoriagoar@euskaltel.net

**Txintxo**  
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 742 674



# uztaila



Epaimahaiaren sari berezia jaso zuen Ainar Argoitia BARRENEKO kazetariak (Eibar, 1978) Rikardo Arregi kazetaritza sarietan. BARRENE argitaratutako lau lanengatik saritu zuten, bereziki bi piezegatik: "Euskal Herrian bizi dugun memoriaren berreskuratze eta bakeranzko garaiotan", Ainarak egindako ahalegina "gogoangarria" dela esan zuen epaimahaiak, "bereziki gai korapilatsuak lantzeko hartu zuen tonu serio eta estridentziarik gabekoa-gatik". Kazetariaren idazkeran "dotorezia eta adierazkortasuna" azpimarratu zituen epaimahaiak.



Euskadiko Olinpiada Matematikoak irabazi ostean, Espainiako txapelketan hartu zuen parte Guillermo Hijanok, eta aipamen berezia jaso zuen. Hego Euskal Herriko, Herrialde Kataluniarretako, Galiziako eta Espainiako herrialde ezberdinetako 61 ikasle batu ziren Andorran, eta matematika frogak egin arazi zituzten guztiei. Banakako probetan sei onenak saritu zituzten aipamen bereziarekin.



Txarriduna jatetxearen pintxoak irabazi zuen pintxo lehiaketa. Bigarren jantzi zuen Imanol Urainek txapela, Txarriduna jatetxeak irabazita zeukan-eta beste behin ere lehiaketa hau. Heritarren ustez, baina Sigma jatetxeko pintxoak izan zen onena. 11.457 boto eman zituzten heritarrek. Pintxo lehiaketaren bosgarren edizioan sekula baino taberna gehiagok hartu zuten parte: 25.



**IHARDUN**  
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



## Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabiloia, K-L  
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net





Gaztemapping, gazteen aisialdi ohiturak ikertzeko egitasmoa, abiatu zuen Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak, Manahmana enpresarekin elkarlanean. Gazteak lokaletan sartuta bizi direla eta oso pasiboak direla entzun izan dugu sarri. Gerturatu eta ikertu. Hori izan zen Manahmana enpresak Elgoibarko gazteei proposatu nahi izan ziena. 13 eta 30 urte bitarteko gazteen interakzioa sustatuz, Elgoibarko aisialdia aberastea bilatzen dute.



Mendaroko Txirrindulari Elkarteak 30 urte bete zituela eta jaiei hasiera emateko ardurara eman zien Mendaroko Udalak eta eurek piztu zuten Santa Ana jaiei hasiera eman zien suziria.



Helize tiroko Espainiako Kopa txapelketa irabazi zuen Unai Oñederra elgoibartarrak, Chesten (Valentzia).



Elgoibarko Udaleko Hirigintza Sailak herriko kale, plaza, parke eta bestelako tokiei izena ematen dieten plakak berri zituen. Hori dela eta, plaken itxura aldatu egin da. Plaka berriak Udalaren logoa, fondo urdina eta letra zuria ditu.



**talleres**  
**ZAILDU** S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean plancekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Gabon jai zoriontsuak  
elgoibartar guztioi!**

Santa Klara, 40  
Tel: 943 74 07 60  
Faxa: 943 74 39 95

**TANTAKA**  
TABERNA

**ENTZALADAK  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK  
RAZIOAK**

**Urte berri on!**

Aita Agirre, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 030 736



Kalegoengo frontoi zaharrera itzuli ziren San Bartolome Egunean profesionalen arteko esku pilota partidak.



Idi-probak izan ziren San Bartolome jaietako egitarauan berrikuntzarik nabarmenena, eta gainera, sekula proban ibili gabeko idiak ikusteko aukera izan zen Sigmako aparkalekuan ego-kitu zuten probalekuan. Antolatzaileek esandakoaren arabera, izango dira 50 bat urte horrelakorik antolatzen ez zela herrian.



2009an estreinatu zuen Iñaki San Martin Soarte argazkilariak Apur batean sokadantza lana, baina aurten arte ezin izan genuen El-goibarren ikusi. Kultur Etxean jarri zituen ikusgai abuztuaren 24an egiten den sokadantzari buruzko 40 koadroko erakusketa.



Jon Lizarralde Haritz Dantzari Taldeko kideak 25. aldiz dantza egin zuen aurrezulari moduan abuztuaren 24ko soka-dantzan. Hori dela-eta omenaldia egin zioten.




**PNEUMAX**, S.A.

**AUTOMATIZAZIO  
NEUMATIKORAKO  
OSAGIAK**

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR  
Teléfono: 94374 41 44- 943 74 41 74  
Telefax: 943 74 40 78  
E-Mail: pneumax@pneumax.es  
Web: www.pneumax.es



*Gabon zoriontsuak  
herritar guztioi!*





**Elgoibarko EAJ-PNVk eta  
EGIk jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
elgoibartar guztioi!**





iraila



245 lagunek hartu zuten parte Gau Krosean. Mugertza kroserako dirua biltzeko asmoz antolatzen du Mintxeta atletismo taldeak Gau Krosa, eta beste behin ere, herritarrek ez zuten hutsik egin.



Natalia Mellado elgoibartarrak bakarkako lehen diskoa kale-ratu zuen. Caminos de vuelta dauka diskoak, eta hainbat herrialdetako herri musikaz osatuta dago. Herrialde desberdinetako kantei jarri die ahotsa elgoibartarrak lan honetan.



Sanlobeer fest antolatu zuen estreinakoz Sanlok, eta eskubaloia eta jaia uztartu zituzten asteburu osoan zehar. Kirol taldeen aukezpena egiteaz gain, garagardo festa antolatu zuten. 14 talde eta 300 jokalarirekin ekin zion Sanlok denboraldiari.



Elgoibar.klikbat egitasmoa jarri zuen martxan Udalak, ostalaritza eta merkataritza sektoreak sustatzeko. Ostalari eta merkatarien eskaintzak aurkitzeko atari digitala da.



# OSASUN GIDA



## OPTIKAK

**6507**  
**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**  
**UZURI**

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

## OTORRINOLARINGOLOGIA

**183\12**  
**UZURI**

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapiiak neurria (uretarako tapiiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Frantzisko, 21  
Elgoibar  
Tel: 943 740 359



50. urteurreneko liburua kaleratu zuen Elgoibar Ikastolak. Ikastolarekin lotu-  
ra izan duten hainbat lagunen bizipenetatik abiatuta osatu dute 50 urte ge-  
lak bizipenez betetzen liburua. 10 euroan eros daiteke liburua Pitxintxun edo  
Gorostizan.



Topa Eguna, euskaltzaleen festa, ospatu zuten Soraluzen. Topaguneak eta  
euskara elkarteek antolatu zuten jai, Elgoibarko Izarra, tarteko. Adin eta  
gustu guztietako jendearentzako egitaraua antolatu zuten, eta giro onean  
pasatu zuten eguna.



Auto batek su hartu zuen Bernardo Ezenarro kalean. Gidaria onik irten zen  
auto barrutik, eta ez zen zauriturik egon. Ke asko eragin zuen suteak, eta  
badaezpada inguruko komertzio eta tabernak itxi egin zituzten. Eibarko  
suhiltzaileek amaitu zuten lana.



Gerald Morisset medikua hil-  
da aurkitu zuten irailaren  
28an. Bizilagunek haren falta  
igarri zuten, eta etxetik oso  
usain txarra irteten zela ohar-  
tarazi ziren. Atea jo zuten,  
baina inork irekitzen ez zuela  
ikusita, Udaltzaingora jo zu-  
ten. Suhiltzaileak sartu ziren  
etxera, eta haiek aurkitu zu-  
ten sendagilearen hilotza. 30  
urte baino gehiago egin zi-  
tuen Elgoibarren sendagile.

## HORTZ KLINIKAK

**171\12  
LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higijenea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

## FISIOTERAPIA

**271\12  
AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa  
(Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea- Elgoibar  
Tel.: 943 531 953 - Tel.: 669 565 745

**177\12 fisio&más**

**Fisioterapia aurreratua eta  
kirol berregokitzea**

- Esku-terapia.
- E.P.I ® (Tendinitis tratamendua,  
zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopatikoa:  
+ Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, estriak)

**Osasunerako ariketa agindua**  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio  
arteriala)

**Entrenamendu gidatua**

**Pilates makinak**  
(errehabilitazioa) 3 pertsona gehien.

**Txirrindulariaren biomekanika** (kalak,  
ergonomia bizikletan eta lesioen pre-  
bentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628



# urria

Arkaitz Egañak bigarren egin zuen Gipuzkoako Ehiza Xehe txapelketan, sei eper botata. Gipuzkoa osoko mila bat ehiztarik hartu zuten parte, eta horietatik 50 sailkatu ziren azken faserako, tartean, Egaña.



Bakearen aldeko nazioarteko konferentzian hartu zuen parte Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Munduko herrialde desberdinetako alkateek hartu zuten parte konferentzian, eta bakoitzak bere esperientziak azaldu zituen. Etxeberriak Elgoibarko bizikidetza planaren berri eman zuen.



Sargoateko iturria berreskuratze lanak egin zituzten auzolanean. Mendiko ondarea berreskuratze egitasmoa jarri du martxan Morkaiko mendizale elkarteak, eta egitekoen artean, Sargoateko iturria berreskuratzea izan zen lehenengo lana. 30 bat lagunek hartu zuten parte ekitaldian, eta antolatzaileak pozik agertu ziren.



Lau urte bete zituen preso Arnaldo Otegi urriaren 13an. Otegiaren aldeko plataformak manifestazioa antolatu zuen "bidegabekeria" hori salatzeko, eta jendetza batu zen herriko kaleetan, Otegi libre uzteko eskatzeko.



Arnasten ikasteko berriz diskoa kalera-tu du Napoka Iria bikoteak. Barrura begirako bidaia egin dute oraingoan Miren Narbaiza eta Ander Mujika bikoteak. Hilaren 22an eskainiko dute kontzertua Elgoibarren.



Julian Gorroño Herri Eskolako eskolazaina jubilatatu zen, 29 urteren ondoren. Urriaren 24an bete zituen 65 urte, eta egun berean egin zioten omenaldia Herri Eskolan.

**m mendaro ikastola**

Mendaro ikastolako TXOKOLOREN partez, zorionak eta urte berri on!

**TELLABIDE** Gabon zoriontsuak!

ITURGINTZA  
Berogailuak  
Gasa  
Aire egokitua  
Erregai likidoak

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatellabide@hotmail.com

**Arriola Aroztegia** Gabon zoriontsuak!

Garagartza kalea, 44  
Telf.: 629 258 172  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Karmelo Urdangarin ekonomilariari eman zioten Gure Baloioak saria. Urdangarin Deban jaio zen 1932an, eta gazte-gaztetatik erakutsi zuen lankidetzarako gaitasuna. Horixe nabarmendu zuten sari banaketa ekitaldian ere. Jesus Bilbao iazko saridunak eman zion saria.



*Euli giro* liburuak argitaratu zuen Uxue Alberdik. Helduentzako literaturan idatzitako hirugarren lana da hau elgoibartarrarentzat. Bederatzi ipuin biltzen ditu liburuak, denak gaur egunekoak baina euren artean oso desberdinak.



Aubixa baserriaren 40. urteurrena ospatu zuten. Irailean bete zituen 40 urte Aubixa baserriak, eta urrian egin zuten ospakizun ekitaldia. 1973an zabaldu zuen Elgoibarko Izarrak Aubixako aterpetxea, eta ordutik gaur egunera arteko ibilbidean lanean jardun dutenei eskerrak eman zizkieten urteurreneko ekitaldian.



Ainara Ladronen aurkako epaiketa hasi zen. Fiskaltzak hamar urteko kartzela zigorra eskatu zuen elgoibartarrarentzat, Segi "erakunde terrorista" izendatu izana salatuzko 2007an A8 autobidean eginiko protesta ekin-tza bategatik. Ladroni babesba emateko ekitaldia egin zuten Maalako parkean.




**AUTOCARES REVERT**

*Gabon zoriontsuak!*

P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 741 853 - Fax 943 531 386



**DOÑA MERCEDES**

San Frantzisko, 21  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 742 652  
943 742 137

*Jai zoriontsuak!*

**AHOLKULARITZA**

**BIKAIN** ASESORIA

- ① Zerga-aholkularitza
- ② Lan-aholkularitza
- ③ Kontabilitate aholkularitza

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR



**AZALEA** Edergintza

Mª Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkl. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizantzakoa) - Mikropigmentazioa



azaroa



Imanol Garaizabalek irabazi zuen raid probetako euskal liga, Aaron Garmendiarekin. Denboraldiko raid guztiak egin ditu aurten elgoibartarrak, eta emaitza oso onak lortu ditu. Datorren urteari begira nazioarteko probaren bat egitea gustatuko litzaiokeela adierazi zion Garaizabalek BARRENI.

Munduko marka ondu zuen Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolariak esku bakarrarekin. Hiru metro eta 40 zentimetroko enborra moztu zuen Bihurrik, bi ordu, bederatz minutu eta 35 segundoko denboran. Bilboko La Casillan izan zen erakustaldia, eta bildutako dirua gaixotasun arraroak dituzten umeentzat izan zen.



Iñigo Larizen urtea izan da 2013a: Kilometro Bertikalen Espainiako Kopa irabazi zuen marka guztiak hautsita. Finestraten (Alacant) jokatu zen txapelketan aurreikuspen guztien gainetik, berak jantzi zuen txapela. Eta astebete geroago errekorra ezarri zuen Karakateko Igoeran. 20. aldiz jokatu zen igoera, eta irabazteaz gain, Oier Ariznabarretaren denbora ondu zuen Larizek. 27:39 denboran ezarri zuen marka berria.

Espainiako Giza Eskubideen saria jaso zuen Jaime Arresek. Biktima diren heinean, bakearen alde egin duen lana eta erakutsi duen konpromisoa nabarmendu zituzten sari banaketa ekitaldian.



## IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI

*Elgoibar Arreiture BHI-ren izenean Gabon-jai eta Urteberri zoriontsuak opa dizkiezuegu.*

### Eguberri on!

Haize hotzaren dantza leuna  
Neguaren hasiera  
Kaleko argi zuria gure  
Egun ilunak piztera  
Bi mila eta hamahiru  
Auzen balia eskaintzera  
Eta datomen garai berria  
Irribarez agurtzera.  
Pentsamenduen maleta pozez  
Ilusioz betetzera.  
Nostalgia tartea utziz  
Geroa begiratzera  
Falta direnak gogora ekarri  
Gertu gaudenen artera  
"Gabon" jaun urtero lez gureta  
Orgi etorria zera.

Doinuz: Marba baten lehen notak



Haizea Berstein Batx 2B





Anjel Ibarluzea eta Aitziber Olaizolak irabazi dute Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa. Aiaستيako senar-emazteek neurria hartua diote txapelketari, eta biek jantzi dute txapela, bakoitzak bere kategorian.

Jokin Urain Mendaroko preso aške utzi zuten azaroaren 20an. 1986an atxilotu zuten Urain ETAko kide izatea leporatuta. 23 urteko kartzela zigorra bete ostean, Parot Doktrina ezarri zioten 2007an, kartzela zigorra 2016ra arte luzatuz. 27 urte egin ditu preso. Alkortako Igoera jokatu bezperan iritsi zen Urain Mendarora, eta berezia izan zen aurtengo igoera.



Lagunez inguratuta ospatu zuten Haritz dantza taldeak 40. urteurreneko azken ekitaldia. Urte osoan zehar egin dituzte urteurrena ospatzeko ekitaldiak, eta erre-matea emateko Euskal Herriko sei dantza talde gonbidatu zituzten Elgoibarrera.



Goierrri marrazkitan liburua argitaratu zuen Julen Zabaletak. Goierriko 330 eraikin eta monumentu historikoren marrazkiak egin ditu Zabaletak libururako.



**Jai zoriontsuak denoi**

**GABILONDO**  
317  
api  
INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua


**API** { Edurne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

**HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA**

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 744 467



Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeko kideek dimisioa aurkeztu zuten, tartean Jesus Mari Makazaga elgoibartarrak. Batzordeek dituzten konpetentziekiko errespetua eskatu zuten.



Autismoa eta laguntza-txakurri buruzko nazioarteko batzarraren egin zuten Anateusk elkarteak Elgoibarren. Txakurrak familietan integratuz, autismoa duten umeekin lan egiten dute. Bat izeneko txakurrekin abiatu zuten egitasmoa. Xabi, Pili eta Javirekin bizi da Bat.



Euskarak 365 egun bete zituen abenduaren 3an. Euskararen erabilera ez dela egun bakarreko kontua aldarrikatu zuten aurretik, Euskararen Egunaren harira. Euskalgintzako eragile eta norbanakoek elkarlanean antolatuta zuten Euskararen Eguna, eta euskararen suaren bueltan ospatu zuten.



Izaskun Estibaritzek eta Sanlok jaso zituzten kirol arloko Berdintasun sariak. Kirol arloko estamentu guztietan emakumeen partaidetza lortzeko egindako ekarpen esanguratsuak goraiatzeko antolatu zuten Udalak Kirol Alorreko Berdintasun Saria.

I. URTEURRENA

KERMAN MORENO IRIONDO



*Mendietarantz pauso luzea  
bizitzak krudel haizea  
nola gainditu, nola arindu  
zu hemen ez izatea  
zure goxoa, zure barrea  
gertu beti umorea  
ez hiltzen zenbat saiatzan garen  
bizitzen gutxi ordea  
gugan landatu dituzunekin  
segiko dugu bidea*

*Etxekoak*



2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, abenduaren 21ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.

Azaroan...

## JAIOAKOAK



**Jon Astorkitza Leon**  
Azaroak 13  
Joseba eta Mari Karmen

**Maialen eta Maddi Migales Jauregi** Azaroak 12  
Cipriano eta Blanca

**Peru Agirreazaldegi Garrido** Azaroak 15  
Hector eta Lore

**Oinatz Ansola Irazabal**  
Azaroak 7  
Iñaki eta Itxaso

**Yasser El Wali**  
Azaroak 11  
Zahir eta Rahma

**Marina Gonzalez Muñoz**  
Azaroak 12  
Gorka eta Maider

**Irene Trinidad Gallego**  
Azaroak 18  
Lander eta Amagoia

**Beñat San Martin Zubizarreta** Azaroak 18  
Manex eta Amagoia

**Peru Aizpurua Zabala**  
Azaroak 27  
Juan Carlos eta Maite

## HILDAKOAK

**Arantza Palacios Urdiain** • 58 urte • Azaroak 1  
**Donato Zamorano Zamorano** • 72 urte • Azaroak 10  
**Felix Mier Perez** • 78 urte • Azaroak 13  
**Luis Fernando Ayesta Rubio** • 56 urte • Azaroak 17  
**Jose Mari Epelde Alkorta** • 52 urte • Azaroak 20  
**Isabel Ruiz Gomez** • 95 urte • Azaroak 20  
**Asier Makazaga Bengoetxea** • 49 urte • Azaroak 23  
**Manuela Azpeitia Egaña** • 84 urte • Azaroak 24  
**Kontxita Armendia Izagirre** • 89 urte • Azaroak 26  
**Valentin Txurruka Arrizabalaga** • 71 urte • Azaroak 26  
**Mari Karmen Etxeberria Agote** • 94 urte • Azaroak 28  
**Faustino Pascual Saiz** • 72 urte • Azaroak 28  
**Juan Eguren Diaz** • 90 urte • Azaroak 29  
**Rosa Unzueta Iriondo** • 94 urte • Azaroak 29

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA  
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA

KUTXAK, TRASLADOAK  
eta KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak

Erietxe zentruetan zerbitzuak


Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 /  
(Sakelekoa) 635 756 295



I. URTEURRENA  
**KERMAN MORENO IRIONDO**

*Heriotzaren ondoren  
gure laguna ez ikusteak  
edo berarekin komunikatu ezin izanak  
ez du esan nahi betiko galdu dugunik.*

Zure lagunak



2012ko abenduaren 20an hil zen,  
43 urte zituela.

**ZORIONAK eta Urte Berri On**

**Cristina Garcia**  
Estetika eta Terapia Naturalak



Errosario kalea 19   
943 74 29 50 • cgestetika@gmail.com



**zAZPI**  
INFORMATIKA

Bernardo Ezenarro, 15 behea  
Tel. / Faxa: 943 74 37 87  
E-maila: zazpi@telefonica.net

20870 - ELGOIBAR  
(Gipuzkoa)

**BALIATU  
AUKERA HAU  
ZURE URTEROKO  
PROPOSAMEN  
HORI BETETZEKO**

*urte berri on!*



**ITURRI  
TABERNA**

Foruen plaza, 5  
Tel.: 943 257 448



**PINTXO HOTZAK ETA BEROAK  
RABAK,  
RAZIOAK,  
OGITARTEKOAK**

*Ez dugu izaterik aske haiek gabe...  
MAITE ZAITUZTEGU!*



**Gabon zoriontsuak!**



**Erosi internetez!**  
[www.muruamendiaraz.com](http://www.muruamendiaraz.com)  
San Bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345

ESKERTZA

**ANTONIO BARRENECHEA URQUIOLA**

*"Borrajén"*



2013ko urtarrilaren 2an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 4an, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.



I. URTEURRENA

**CELIA BARRENECHEA ARCE**



2012ko abenduaren 18an hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barixakuan, abenduak 20, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.






# Beinke bertso-eskola 5-9 urte bitartekoentzat

Zuen seme-alaba bertso-eskolan  
apuntatzeko interesik baduzue,  
jarri harremanetan gurekin

[atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com)

943 74 16 26 (Naiara)



## Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarko Izarraren tonbolara batuko dira

11:00etan zabalduko dute tonbola Kalegoen plazan

**E**lgoibarko Izarrak tonbola jarriko du abenduaren 24an Kalegoen plazan. Olentzero eta Mari Domingirekin batera, beraz, opariak banatuko ditu aurten euskara elkarteak. Hiru mila boleto jarriko dituzte salgai, bakoitza euro batean, eta mila opari baino gehiago banatuko dituzte. Horrez gain, txorizo taloak eta pintxoak jateko aukera ere eskainiko dute txosnan. Bestalde, diana antolatu dute 9:30erako, eta kaleak kantuz alaituko dituzte Olentzero, Mari Domingi eta beste hainbat lagunekin. Kalejira nagusia, Kalegoen Plazan hasiko da 11:30ean, eta San Bartolome kaletik Kultur Etxe aurrera joango dira. Han dantza herrikoiak egingo dituzte, eta ondoren, Errosario kaletik Kalegoen plazara itzuliko dira. 12:30etik aurrera umeen gutunak jasoko dituzte Olentzerok eta Mari Domingik elizako arkupeetan.

### Mendaron, 11:00etan

Ameikutz musika eskolak antolatzen du Mendaron Olentzero eta Mari Domingi-



ren kalejira. Azpilgoetan hasiko dute kalejira, Mañuskako iturri ondoan, 11:00etan. Handik Garagartzaruntz abiatuko dira, Plaza gurutzatu eta txaleten ondotik aurrera, eta Garagartza pasata, Estazio kaletik San Joseruntz joango dira. Frontoian amaituko dute ibilaldia eta han haurren gutunak jasoko dituzte Olentzerok eta Mari Domingik. Ondoren, ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte.

## 18:00etan iritsiko dira Errege Magoak Elgoibarrera, eta 18:30ean Mendarora



Urtarrilaren 5ean 18:00ak alderako iritsiko dira Errege Magoak Elgoibarrera, Jesus haurtxoa gurtzera. Ondoren, herri osoa zeharkatuko dute zaldi gainean, bidean batzen diren herritarrei gozokiak banatzen. San Lazaro egoitzan geldialdi berezia egingo dute bertako kideei opariak banatzeko, eta gero, Kalegoen plazara itzuliko dira, umeen gutunak jasotzeko. Hurrengo egunean kristau ikasbidekoen mezan ere hartuko dute parte Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek.

Mendaron 18:30ean hasiko da kabal-gata, Ospasen. Herria zeharkatu ostean, frontoian jasoko dituzte umeen gutunak.

### 'Erotik' antzezlanaren aurkeztuko du Taupadak, gaur

Taupada antzerki taldeak *Erotik* antzezlanaren estreinatuko du gaur, Herriko Antzokian. Antzezlanaren psikiatriko batean girotu dute, eta han ezer ez da dirudiena. 22:00etan hasiko da emanaldia, eta ehun minutuko iraupena izango du. Sarrerak lehiatilan bertan erosteko aukera egongo da, 7 euroan.

### Gaur jarriko dute martxan jaiotza mekanikoa

Elgojaitza taldeak gaur jarriko du martxan jaiotza mekanikoa. 20:00etan inauguratuko dute, eta urtarrilaren 17ra arte egongo da ikusgai. 40 metro koadro izango ditu jaiotzak, eta 33 figura ikusi ahal izango dira mugimenduan.

### Pirritx, Porrotx eta Marimotots urtarrilaren 2an etorriko dira

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizipoza* ikuskizuna aurkeztuko dute urtarrilaren 2an. Bi saio eskainiko dituzte, bata 16:30ean eta bestea, 18:30ean. Sarrerak [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean erosi behar dira. Nagusientzako sarrerak 10 euro balio ditu, eta umeentzako sarrerak 8 euro.

### 'Olentzeroren ametsak' antzerkia, domekan

*Olentzeroren ametsak* antzezlanaren taularatuko du Kalika Teatroak domekan, Herriko Antzokian. Olentzero amets batean harrapatuta dago, eta arazoak izango ditu umeen gutunak irakurtzeko. Maitagarriaren magiaren bidez soilik esnatu ahal izango da Olentzero. Mari Domingik, Prakagorrik, Gonagorrik eta gainerako lagunek sekulako korapiloa askatzen lagundu beharko diote Olentzerori. Lortuko al du azkenean gutunak irakurri eta umei opariak banatzea? Domekan askatuko da korapiloa, 16:30etik aurrera. Gurasoentzako sarrerak 5 euro balio ditu, eta umeentzako sarrerak, 3,5 euro.

# San Bartolome parrokian izango da Eguberrietako bertso saioa

Ekitaldirako sarrera guztiak agortu dira

Astlehenean jarri zituen salgai Elgoibarko Izarrak bertso saiorako sarrerak, eta lehenengo egunean agortu ziren Herriko Antzokirako sarrerak. Hori dela-eta, eszenatoki handiagoa topatu behar izan dute antolatzaileek, eta San Bartolome parrokiara lekualdatu dute saioa. Abenduaren 27an, barixakuan, izango da saioa 22:00etan, eta ordubetik aurretik zabalduko dituzte ateak. Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Andoni Egaña eta Amets Arzallus ariko dira bertsoan. Hortaz, azken hiru Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazleek bat egingo dute oholtzan: Andoni Egaña, Maialen Lujanbiok eta joan den domekan txapela jantzi zuen Amets Arzallusek. Joan den urtean moduan, aurrean ere Uxue Alberdik egingo ditu gaitzartzaile lanak, eta Aitor Nova eta Naia Menbrillerak jarriko dute musika.



## 42 umek hartu dute parte jaiotza lehiaketan

Parrokiako Katekesiak antolatuta, jaiotza lehiaketaren 27. ekitaldia egin zuten domekan. Aurreko urtekin alderatuta partaidetza txikiagoa izan du aurtengo lehiaketak, eta guztira 18 lan aurkeztu dituzte, 42 umeren artean. Aurkeztutako lanen artean Ainitze Plazak eta Eider Plazak aurkeztutako jaiotzari eman zioten lehen saria epaimahaikideek. Denetarikoa materialiaz eginiko lanak aurkeztu zituzten lehiaketara. Zubiaurre-Murua familiak Errosario 7an duen lokalean jarri dituzte ikusgai lan guztiak.



## Aurkeztu dute 2014ko egutegia



Martitzenean aurkeztu zuen Udalak Elgoibarko argazkiekin osatutako 2014ko egutegia. Egutegi handiak 2.500 argitaratu dituzte. Elkarte, eskola, erakunde eta abarretan banatu dituzte, baina Kultur Etxean edota Herritaren Arreta Bulegoan ere eskuratu daitezke. Txikiak, berriz, 6.000 ale atera dituzte, eta herriko postontzi guztietan banatu dituzte. Aurtengo argazki lehiaketan 50 lagunek hartu dute parte, eta guztira 262 argazki aurkeztu dituzte. Hauek izan dira irabazleak: Eulogio Mancebo, Mikel Zengotita, Larraitzi Zialtzeta, Oier Ramos, Maite Loiola, Asier Orbea, Haizea Sanchez, Oihane Osoro, Eider Iriondo, Aitor Rementeria. Argazki bakoitzak 70 euroko saria jaso du. Marrazki lehiaketan, aldiz, 82 umek hartu dute parte, eta irabazleek motxila bana jaso dute. Hilabete bakoitzean marrazki eta argazki irabazle bana ageri dira.

## Napoka Iriak kontzertua eskainiko du domekan

Miren Narbaizak eta Ander Mujikak osatzen duten Napoka Iria taldeak etxean aurkeztuko du kalera-tu duten azken diskoa: *Arnasten ikasteko berriz*. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan eskainiko dute kontzertua datorren domekan, 19:00etatik aurrera. Sinuöse kolektiboak antolatu du kontzertua.



## Izaskun Estibaritzek eta Sanlok jaso dute kirol alorreko Berdintasun Saria

Euskadiko eskubaloia selekzioak 24-26 galdu zuen Txileren kontra

**E**lgoibarko Udalak kirol arloko Berdintasun Sariak antolatu ditu aurten es-treinakoz. Taldekako saria Sanlo Eskubaloia Taldeari eman diote, eta Izaskun Estibaritzi bakarkako saria. Euskadiiko eta Txileko emakumezkoen senior taldeek jokatuz partidaren aurretik egin zuten sari banaketa ekitaldia. Kirol taldeko jokalariek beteroenak eta gazteenak jaso zuten taldekako saria, Sanlo kirol taldearen ize-nean. Izaskun Estibaritzek, berriz, esker honeko berbak izan zituen saria jasotzerakoan.



### Euskadi-Txile

Euskadiko emakumezkoen eskubaloia selekzioak lagunarteko partida jokatu zuen zapatuan Txileren aurka, Olaizaga kiroldegian. Jendez gainezka egon ziren harmailak eta partida lehiatua eskaini zuten bi taldeek kantxan. Azkenean hegoamerikarrek irabazi zuten partida, bi goleko aldeaz: 24-26. Minutu erabakigarrietan huts gutxiago egin zituen Hego Ameriketako taldeak, eta bi goleko errentaz irabazi zuten partida.



### Ibon Bengoetxea fitxatu du Concepto Egile areto futbol taldeak



Concepto Egilek taldea indartu du, Ibon Bengoetxea fitxatuta. Gasteizko Aurrera taldean eman dituzten bi denboraldiak, eta orain Elgoibarren jokatu du. Aurrez Legutioko taldean jokatu zuen, eta 2005-2009 urteen artean, Nazional A mailako Atletico Aretxabaleta taldean jokatu zuen. Pibote postuan jokatzen du.

Concepto Egile taldea sailkapen nagusiko bigarren lekuan dago 27 punturekin. Zortzi partida irabazi ditu, hiru berdindu eta bi galdu. Liderrak baino bi puntu gutxiago ditu Elgoibar-ko taldeak.

### Elgoibarko eskiatzaile bat erreskatatu zuten Ezcarain

45 urteko eskiatzaile elgoibartar bat erreskatatu zuten domeka eguerdian, San Lorenzo mendiko mendi-hegal batetik behera erori ostean, Errioxan. Ondoko argazkian, Valdezkarayko eski estazioa, San Lorenzo mendiaren magalean. Ezbeharraren abisua 12:30ak aldera jaso zutela jakinarazi du SOS Riojak. Errioxako gailurrik garaiena den San Lorenzo mendiaren (2.271 m) mendebaldeko aurpegiko mendi-hegal batetik amildu zen 45 urteko eskiatzaile elgoibartarra. Errioxako Larrialdi Agentziako kideek Guardia Zibilaren EREIM mendiko erreskateetarako talde berezia eta helikoptero bat mobilizatu zituzten eta istripua izan ostean erori zen sakanetik helikopteroz atera zuten eskiatzaile elgoibartarra.



# Bihar bukatuko da Nazioarteko Xake Txapelketa

Elgoibartar batek estreinakoz hartu du parte txapelketan



**D**omekan hasi zen Elgoibarko Nazioarteko Xake txapelketa eta bihar arte jokatuko dituzte partidak udaletxeko pleno aretoan. Aurtengo berezitasunen artean, xakelari elgoibartar baten izena ageri da partaideen artean: Gustavo Barrenetxea. Elgoibartar batek txapelketa honetan parte hartu duen estreinako aldia izan da, eta antolatzaileen ustez, are erakargarriagoa bihurtu du horrek txapelketa elgoibartarrentzat.

Barrenetxearekin batera, izen handiko xakelariak dihardute lehian aurtengo ere Elgoibarko Txapelketan: Christian Cruz (Peru), Daniel Alsina (Katalunia), Aleksa Atrikovic (serbia), Tanguy Ringoir (Belgika), Dragan Paunovic (Serbia), Oleg Romanishin (Ukraina), Angel Arribas (Madril), Alejandro Franco (Euskal Herria), eta David Astasio (Euskal Herria).

Sari banaketan bihar izango da, 13:00etan.

## Mendaroko Haur Krosa, bihar

Mendaroko Txirindulari elkarteak antolatuta, bihar jokatuko dute Mendaroko Haur Krosa. Mendarozabalen jokatuko da proba, 17:00etatik aurrera. Izenematea proba hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko da. Lasterketa amaitez, dominak eta gozokiak banatuko dizkiete partaide guztiei.

## San Silvestre lasterketa, hilaren 31n, 00:01ean

Aurtengo gauaz egingo dute San Silvestre lasterketa. Abenduaren 31n jokatuko da, 00:01etik aurrera. Dortsalekin egingo dute korrika, eta denborak hartuko dituzte. Garaikurrak banatuko dituzte irabazleen artean, eta proba amaieran txokolata beroa banatuko diete partaide guztiei. Kalegoen plazan hasiko da lasterketa.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Beasain 0 (3. maila)  
Amaiak 5 – Elgoibar 2 (Erreg.)  
Beasain 2 – Elgoibar 0 (Neskak)  
Elgoibar 1 – Amaiak Bat 2 (Jub.)  
Amaiak Bat 3 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Elgoibar 1 – Burumendi 3 (Kad. B)  
Elgoibar 4 – Burumendi 2 (Inf.)  
Elgoibar 0 – Ilintxa 2 (Inf txiki)  
Elgoibar 2 – Orioko 2 (Aleb.)  
Urola 6 – Elgoibar 3 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Ibarra 2 – Concepto Egile Elg. 2 (2B)  
Goierri 1 – King Kong Elg. 2 (Jub.)

### SASKIBALOA

Erroibide Irun 42 – Viento Sur Elg. 70

### ESKUBALOA

Alkorta Elg. 26 – Tolosa 29 (Sen. mut.)  
Irun 23 – Gabaz Elg. 23 (Sen. mut.)  
Kukullaga 34 – Astigarraga Elg. 20 (Jub. neska)  
Beristain Elg. 29 – Bidasoa 25 (Jub. mut.)  
Kukullaga 30 – Tecnifuelle Elg. 24 (Kad. neska)  
Pneumax Elg. 24 – Egia 36 (Kad. mut.)  
Zarautz 21 – Txarriduna Elg. 21 (Kad. mut.)  
Zarautz 16 – Murgil Elg. 22 (Kad. neska)  
Deca Elg. 28 – Zarautz 26 (Inf. mut.)  
Bankoa Elg. 25 – Zarautz 22 (Inf. mut.)  
Aiala B 24 – Ikus Elg. 22 (Inf. neska)  
Pulpo 22 – Cometel Elg. 17 (Inf. neska)  
Aiala A 6 – Aterpe Elg. 25 (Inf. neska)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21

10:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Neskak f-8)

12:00 Elgoibar – Bergara (Kad.)

16:30 Elgoibar – Mutriku (Erreg.)

Domeka, 22

12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 21

11:30 Astigarraga Elg. – Usurbil (Jub. neska)

13:00 Tecnifuelle Elg. – Usurbil (Kad. neska)

16:00 Pneumax Elg. – Ereintza (Kad. mut.)

17:30 Gabaz Elg. – Urnieta (Sen. mut.)

# BANATU DITUZTE 2013KO KIROL FEDERATUAREN SARIAK

Eguaztenean banatu zituzten 2013ko kirol federatuaren sariak, musika eskolako auditorioan. Sari banaketaren aurretik emakumea eta kirolari buruzko mahainguru bat egin zuten, bost emakume kirolarirekin. Ainhoa Azurmendik egin zituen moderatzaile lanak, eta tertulian Matxalen Ziarsolo Bera-Bera eskubaloit taldeko kapitainak, Patri Espinar pilotari ohiak, Marta San Martin kirol epaileak eta Maria Gallastegi txirrindulari ohiak hartu zuten parte. Mahainguruaren ostean banatu zituzten urteko sariak, eta bi orri hauetan jaso ditugu saridunak.



Emakumeak eta kirolari buruzko mahaingurua.



Mendizaletasuna: Jabier Etxeberria, Sabin Txurruka, Jaime Martinez eta Valentin Txurruka.



Eskubaloia: Aintzane Arizmendi.



Wing Tsun: Ismael Galeano.



Atletismoa: Merche Martinez.



Txirrindularitza: Jose Andres Murua.



Futbola: Jabier Agirrebeña.



Triatloia: Egoitz Mendikute.



Saskibaloia: Jaime Martinez.



Igeriketa: Ainhoa Stockert.



Areto futbola: Oscar Diez "Txirol".



Arku tiraketa: Jaime Martinez.



Boloak: Aitziber Olaizola.



Tenisa: Ruibal alquiler de vehiculos.



Pilota: Iker Odria.



Xakea: Julen Agirre.



Urpekaritza: Kathy Gomez eta Angel Alvarez.



Ehiza: Ixone Juaristi.



Karatea: Patxi Gomez.



Judoa: Sarai Sanchez.



Kirol Patronatua: Morkaiko.



Saritu guztien erretratua.



# Gobike

Santa Ana, 12 • ELGOIBAR

Tel. 943 74 00 25

[www.gobike-elgoibar.es](http://www.gobike-elgoibar.es)



*Haur batentzako bizikleta erosten baduzu,  
ekarri tiket hau eta kaskoa oparituko dizugu.*



**BARREN  
AZOKA**

*Uste duzuna  
baino gehiago!*

**ARANTXA ETA MARIAN**

**FRUTADENDA**

**TEL.: 943 744 440**

**Zure fruta eta barazkia  
dei batean etxean!**

**MARY**

**HARATEGIA**

**TEL.: 943 743 681**

**AMAIA**

**FRUTADENDA**

**TEL.: 635 704 712**

**Etxeko banaketa,  
fruta eta barazki  
freskoak zure etxean!**



**M. ANGELES**

**FRUTADENDA**

**TEL.: 605 674 428**

**680 989 487**

**Zure etxera  
banatzen dugu!**

**TXILARRE barazkiak**

**ELIKAGAI EKOLOGIKOAK**

**TEL.: 635 008 496**

**Salmenta zuzena!**

**Baserritik etxera!**

**ZABALA**

**FRUTADENDA**

**TEL.: 943 744 295**

**Etxeko salmenta zuzena!**

*Urdaiazpiko Iberiko  
eta ardoen zozketa!*

*Abenduaren 23an  
zozketatuko ditugu!*

*Gabon  
zoriontsuak!*

LANA

ESKAERA

- Emakume arduratsua behar da interna lan egiteko  
☎ 669 339 529 (arratsaldez deitu)
- Neska lan bila: Umeak zein adinekoak zaintzeko prest. Orduka.  
☎ 690 925 929
- Neska lan bila: Umeak zein adinekoak zaintzeko prest. Geriatria ikasketak ditut. Garbiketak ere egingo nituzke.  
☎ 666 396 317 / 943 530 908
- Gizona lanerako prest. Adinekoak zaintzen esperientzia. Gauzez lan egiteko prest. Erreferentzia onak.  
☎ 608 820 954 / 943 744 429
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Sukaldari laguntzaile moduan ere egingo nuke lan.  
☎ 616 457 254
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko prest.  
☎ 688 467 147
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna ere bai.  
☎ 631 053 696
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Interna.  
☎ 602 865 726
- HHko hezitzaile gaztea umeak zaintzeko prest.  
☎ 635 588 605 (txaso)
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta DBH2.  
☎ 635 588 605 (txaso)
- Emakumea eskaintzen da lanerako: umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko... Edozertarako prest. Orduka edo interna.  
☎ 678 673 716

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. Esperientziaduna.  
☎ 628 524 420
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak orduka egiteko.  
☎ 619 041 821 / 943 744 033
- Emakumea eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko eta portalak garbitzeko.  
☎ 686 052 084
- Mutila eskaintzen da garajeak, elkarteak edo portalak garbitzeko. Esperientziaduna.  
☎ 692 332 871
- Frantsesa, latina eta euskarazko klaseak ematen ditut. ☎ 617 114 185
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Edozein ordutegi.  
☎ 618 814 064
- Garbiketa edo zaintza lanak egiteko prest nago. Elgoibarren bizi naiz, eta inguruko herrietan ere lan egingo nuke. ☎ 617 043 058

- Kartutxo taberna alokagai, gazteentzako lokal moduan. Intsonorizata. Altura biko biltegia, bi komun. San Frantzisko kalean.  
☎ 615 177 037 (whatsapp ere bai)

BESTELAKOAK

- Betaurrekoak galdu ditut Kalegoen plaza eta Errosario kalearen artean. Moreak dira, bifokalak.  
☎ 688 639 831
- Autoa elkarbanatuko nuke, Markinara joateko. 7:30ean Elgoibartik irten, eta 15:00etan itzultzeko. Astelehenetik ostiralera.  
☎ 676 547 283
- Mac etxeko ordenagailu portatila galdu dut Toletxe inguruan. Lan asko eta garrantzitsuak ditut. Aurkitu duenak buelta dezala. Ordaina emango diot.  
☎ 667 271 480 (Maria)
- Sakeleko telefono bat aurkitu nuen Herri Eskolan.  
☎ 650 280 686

ETXEBIZITZAK

- Pisua alokairuan. Bi logela, egongela handia, sukalde, igogailua, terraza eta ganbara. Altzariekin.  
☎ 646 581 666
- Elgoibarren bizi den gizon bat alokairuan bizitzeko pisu bila dabil. 400-500 euro ordaintzeko prest.  
☎ 659 093 967

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. 16m2. Irteera Txankakoako zubira. 20.900 euro.  
☎ 685 707 879



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**- Gure komunitateko etxe-jabe bat ez da gaur etxebizitza horretan bizi. Bilerak egiten ditugunean, ia inoiz ez da etortzen, eta ez zaiola bileraren berri eman arrazoitzen du. Gero, jakina, desadostasunak sortzen dira batzarrean adostutako gaien inguruan. Zer egin beharko genuke?**

Legez behartuta gaude helbide bat ematera, batzarren eta bestelakoen berri jakinarazi diezaguten. Bizilagun hori ez bada orain bere etxebizitza horretan bizi, beste helbide bat eman beharko dio Presidenteari batzarretarako deialdiak eta gainerako dokumentazioa bidali diezaion. Bizilagun horrek ez badu ordezko helbiderik ematen, Presidenteak lehendik zeukan helbide horretara bidali beharko ditu oharrak, eta balekotzat hartuko da jakinarazpena.

**Gomendioa: Helbide eguneratu bat ematen ez duten etxe-jabeentzako oharrak komunitateko iragarki edo ohar-taulan jarri daitezke, denek ikusteko moduko lekuan. Ohar horretan data zehaztu beharko da, eta baita jakinarazpen hori modu horretan egiteko arrazoiak ere. Komunitateko idazkariaren sinadura izan beharko du oharrak, eta Presidentearen onespena. Gutxienez hiru egunez egon beharko da oharra iragarki-taulan.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Aimar**, hilaren 27an 6 urte beteko dituzulako. Etxeko deon partez, munduko muxurik handiena! Segi horrela!



• Zorionak, **Danel**, hilaren 22an 11 urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Uxue-ren partez.



• Zorionak, **Ana Delia**, hilaren 23an 11 urte egingo dituzulako. Amatzoren eta senideen partez.



• Zorionak, **Malen**, zure 7. urtebetetzean. Muxu asko familiakoen eta, bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Maria Jesus**, abenduaren 25ean 84 urte egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa! Lagunen partez.



• Zorionak, **Intza**, abenduaren 29an 5 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat deon, eta bereziki, Oieren partez.



• Zorionak, **Maria**, zure laugarren urtebetetzean, bereziki, anaia Alai-nen partez.



• Zorionak, **Iker**! Zelan pasatzen den denbora! 11 urte! Familiakoen eta bereziki, Goraneren partez. Ondo pasatu eguna.



• Zorionak, **Beñat**, zure lehenengo urtebetetzean. Igandean ospatuko dugu!



• Zazpiki galanta egingo zaude! Zorionak, **potxolal**



• Zorionak, **Markoni**, abenduaren 24an zure urtebetetze eguna delako. Jarraitu orain arte bezain alai! Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nagore**, abenduan 8 urte egin dituzulako. Besarkada handi bat eta musutxu asko, etzekoen partez.



• Zorionak, **Igor**! 8 urte dagoeneko! Muxu potolo bat guztien partez, eta bereziki, Aiora eta Enararen partez.



• Zorionak, **Mikell**! Azkenean iritsi da! 6 urte! Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Julian**, zure urtebetetze ondorenean, eta bere emazte **Maria Jesusi**, gaur bere urtebetetze eguna delako. Etxeko guztien, eta bereziki, iloba Garazi, Iruñe eta Julenen partez.



**PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra **4€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra **3€** - Argazki bikoitza **5€** - Hirukoitza **7€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **10€**

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEko** bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 20 barixakua

### *Eguberriak*

20:00 Parrokiako jaiotza

Elgojaiotza taldeak inauguratuko du.

### *Musika*

20:00 Musika Eskolako kontzertua

Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute, Parrokian.

### *Antzerkia*

22:00 'Erotik'

Taupada antzerki taldeak lan berria taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 21 zapatua

### *Musika*

19:45 Kontzertua

Parrokiako Abesbatzaren saioa, San Bartolome parrokian.

### *Bakarriketa*

20:00 'El txou de Patxi' Lanbroa tabernan.

## 22 domeka

### *Musika*

12:30 Kontzertua

Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Herriko Antzokian.

- *La alegría de la huerta* (F. Chueca)
- *Nabuco* (G. Verdi)
- *Feliz Navidad* (Rieks V.D. Velde)
- *Antonio PZ. Peciña* (Txomin Mujika)
- *Las fiestas de Estella* (J. Romano)
- *Christmas festival* (L. Anderson)
- *Gaur da nere kristauak* (J. M. Altuna)

### *Antzerkia*

16:30 'Olentzeroren ametsak'

Umeentzako antzerkia, Herriko Antzokian.

### *Musika*

19:00 Kontzertua

Napoka Iriak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

## 24 martitzena

### *Eguberriak*

11:30 Olentzeroren kalejira

Kalegoen plazan.

11:30 Txosna eta tonbola

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

### *Musika*

18:45 Udal Musika Bandaren kalejira

San Lazaro egoitzan abestuko dute, eta, ondoren, Kalegoen plazan gabon kantak kantatuko dituzte.

## 27 barixakua

### *Aisialdia*

11:00 eta 16:30 Gabon parkea

Mendaroko Ikastolan

### *Bertsolaritza*

22:30 Eguberrietako Bertso Jaialdia

Elgoibarko Izarrak antolatuta, San Bartolome parrokian.

## 28 zapatua

### *Eguberriak*

9:00 Gabon Zahar Feria

Lekueder, Kalebarren eta Kalegoen plazan.

### *Aisialdia*

11:00 eta 16:30 Gabon parkea

Mendaroko Ikastolan

## 31 martitzena

### *Kirola*

00:01 San Silvestre lasterketa

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da.

## 2 eguena

### *Ɔailazoak*

16:30 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta

Marimotots

Bizipoza ikuskizuna taularatuko dute Herriko Antzokian.

## 5 domeka

### *Aisialdia*

11:00 Gabon parkea

Mendaroko ikastolan.

### *Eguberriak*

17:30 Jaiotza biziduna

Kalegoen plazan.

### *Eguberriak*

18:00 Erregeen kabalgata

Santa Klaratik etorriko dira erregeak.

## 6 astelehena

### *Eguberriak*

11:30 Meza berezia

Errege magoekin, parrokian.

### *Musika*

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

- *Ammerland* (J. De Haan)
- *Spiritual moments* (D. Stratford)
- *Katuska* (P. Sorozabal)
- *Grease* (B. Gibb)
- *Dantzaldia* (I. Urkizu)
- *Trish-Trash* (J. Strauss)





 **MILAR**

**Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!**

Ubitarte, 11  
Tel.: 943 741 487  
bire@milar.es

**BIRE**

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



1963-2013

50. Urteurrena



*Urtea joan zaigu  
kezka ta zalantza,  
denon artean bultza,  
horra esperantza.  
Elgoibarren Gabonak  
heldu dira antza,  
Zorionak, Elgoibar,  
kanta eta dantza*

**Ondo pasa Eguberrietan!**



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabillioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tallerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



# Gremioen GIDA



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**

**10:00etatik 14:00 etara**



**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**

**MUTUAK ETA ASEGURUAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSAUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleidoako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleidoako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Málaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)